

2017/2018
GIZARTE HEZKUNTZA ETA PEDAGOGIA
III. MODULUA / II. URTEA

PRAKTIKEN DOSIERRA

- HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA -

Irakaslea: Ana Aierbe

Taldea: MIMAU
Aira Calero, Ainhoa
Beitia Letamendi, Unai
Txintxurreta Maiztegi, Maddi
Usandizaga Altube, Maider

AURKIBIDEA

- Sarrera	2
- 1.praktika Aurretiazko ideien galdetegia.....	3
- 2.praktika Zertan datza hezkuntzaren psikologia?.....	5
- 3.praktika Pigmalion Efektua.....	6
- 4.praktika Hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa.....	7
- 5.praktika Narrazio biografikoa.....	16
- 6.praktika Irakaskuntza-ikaskuntza ereduak	17
7.praktika Konstruktibismoa-Ausubel.....	19
8.praktika Konstruktibismoa:hezitzaileen etengabeko formakuntza.....	21
9.praktika Motibazioa:Xedeak.....	24
10.praktika Motibazioa eta esku-hartze soziala.....	30
11.praktika Familia eta arriskuko egoerak.....	33
Ondorioak	36
Talde eta bakarkako balorazioak	36
Bibliografia	39

SARRERA

Dossier honetan, Hezkuntzaren Psikologia izeneko ikasgaiari landu ditugun 11 praktikak aurkituko dituzu. Praktika hauek, ikasgaiari emandako teoriarekin lotura zuzena izan dute, ariketa hauen bidez lotu baitugu teoria eta praktika. Irakasgai honek, hezkuntza jardueren oinarri teorikoak ezagutzen eta ulertzen lagundu digu, jardueren emaitzen eta ondorioen identifikazioa erraztuz. Modu honetan, ariketa ezberdinen bidez hausnarketa indibiduala zein taldekoa eraiki dugu eta galderei erantzunak emanez, hainbat ezaguera eraiki dugu elkarrekin.

1.PRAKTIKA: AURRETIAZKO IDEIEN GALDETEGIA

1. Zer da zuretzat ikastea?

Ezagutza barneratzea; norbaitek beste batengandik jasotakoa edo kanpotik jasotakoa izan daiteke. BEREGANATZEA IKASTEA DA. Hezkuntza modu ezberdinetan jaso daiteke, modu formalean (eskolan, modu sistematikoan), ez-formalean(ludotekak, aisialdi taldeak ...) edo informalean(familia, lagun-taldea). Laburbilduz, edonon eta edozein tokitan ikasten dugu; hau da, bizitzan zehar etengabe ikasten dugu. Ikaskuntza aktiboa edo pasiboa izan daiteke; beste era batera esanda bi motatak izan daiteke hezkuntza: kontzienteki jasotzen dena edo inkontzienteki jasotzen dena.

2. Zer da zuretzat irakastea?

Jakintzak aditzera eramatea edota ditugun ezagutzak jakitera eramatea, besteek ikas dezaten. Hezitzaileak paper garrantzitsua hartzen du hemen (gurasoek, guk ...).

3. Zure iritziz, zeintzuk dira modu egokian ikastearen ezaugarriak?

Ikaslearen motibaziotik hasita, materia memoriaz ikasi beharrean, bereganatzea. Ikaslearen ezagutza ere garatzen joatea beharrezkoa ikusten dugu, ez soilik irakasleak ikasgaiko materia helaraztea, baizik eta ikasleek esperimendatuz beraien ezagutzak garatzen joatea.

4. Zer espero duzu ikastea Hezkuntzaren Psikologia irakasgaiari?

Hezkuntzaren bidean ematen diren garapen kognitiboak; baita bertan sortu daitezkeen arazoak identifikatzen jakitea eta horri erantzun bat ematen ikastea espero dugu.

5. Pedagogo edota Gizarte hezitzailearen lanbidea burutzeko zeintzuk lirateke funtsezko gaitasunak?

Erabiltzaileen behar eta eskakizunei erantzun bat ematen jakitea, emozioak adierazten jakitea, gu zoriotsu eta osasuntsu (animikoki edo pertsonalki) egotea eta hori gure erabiltzaileei transmititzen jakitea, komunikazio on bat (entzute aktiboa) mantentzeko gaitasuna izatea ... Aldi berean, gure erabiltzaileen beharrak identifikatzen jakin behar dugu eta geure burua etengabe formatzen jarraitu behar dugu.

6. Bat-bateko ikaskuntza (eguneroko bizitzan jasotzen dena) eta ikaskuntza akademikoa (eskolan, unibertsitatean ... jasotzen dena) zertan bereizten dira?

Bat-bateko ikaskuntzak, gehienbat, pertsonalki garatzen laguntzen zaituela esango genuke; hau da, egunerokotasuneko bizitzarako balioak ikasten ditugula. Gainera, nahigabe edo inkontzienteki ikasten ditugunak izan ohi dira bat-bateko ikaskuntza honetan bereganatzen ditugun alderdiak. Aldiz, ikaskuntza akademikoan, arlo zehatz baterako alderdiak lantzen

ditugu, gehienbat lanera bideratuta daudenak. Horrez gain, kontzienteki ikasten dugula esan dezakegu.


2.PRAKTIKA: ZERTAN DATZA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA?

1.Zergatik da premiazkoa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak psikologian oinarritzea?

Psikologiak errendimendu akademikoaz gain, garapen pertsonal eta soziala ere kontutan hartzen ditu gizakion hezkuntza-garapen intelektuala aztertzeko. Eta horretarako, beharrezkoa du irakaskuntza-ikaskuntza prozezetan oinarritzea. Prozesu hau, kanpotik datozen hainbat estimulu eta geure organismoaren arteko harremanean oinarritzen baita.

2.Testuan baieztapen hau agertzen da: “ La psicología de la educación estudia todos los elementos y aspectos del escenario educativo”. Modu grafikoan hauek laburbildu itzazue.

“Todos los elementos y aspectos del escenario educativo”



3.PRAKTIKA: PIGMALION EFEKTUA

1. Hezitzaileen igurikapenak (aurreiritziak) nola eragiten dute hezigaietan?

Positiboki nahiz negatiboki izan daiteke, hezitzaileen igurikapena hezigaietan. Zure hitz egiteko moduak, jarrerak, eragina dutelako hezigaietan eragiten dute negatibo edo positiboki.

2.Zer da “pigmalion efektua”?

Hezitzaileak hezigaietan duen eragin positibo edo negatiboa. Bere irugikapenen arabera da eta hiru hitzetan sinplifika genezake: Hezigaiarekiko dugun konfiantza, igurikapenak eta “profecia autocumplida”.

3. Besteekiko Pigmalion bat izateko, zein ezaugarri dira funtsezkoak?

Denok izan gaitezke pigmalion; horretarako, aurreiritziak kendu behar ditugu, pazientzia eduki behar dugu, besteen gauza onak bilatu behar ditugu eta azkenik, besteengandik gauza on edo positiboak ateratzeko gogoia izan behar dugu.

4. Norbere buruarekiko pigmalionak izan gaitezke bainan, zein/tzuk da/dira nahitaezko baldintza/k? Zein pausu eman beharko lirarteke?

Gu gure pigmalion izan gaitezke; helburu bat lortu zehaztu behar dugu, ondoren motibatu lortutako beste esperiantza batzuetaz baliatuz edo gogoratuz eta azkenik, ekin egin behar dugu, zerbait gertatu dadin. Batzuetan, gerta daiteke gure buruari jarritako helburuak ez betetzea. Hau, gure esku ez dauden helburuak gertatzen da; adibidez, elkarrizketa baten lanpostua lortzen ez dugunean. Horrelako kasuak ez daude gure esku. Horrelakoetan, zergatik ez dugun lortu analizatu behar dugu, zein akats egin dugun ikusi eta hau hobetzen saiatu. Bestalde, ez badugu akatsik egin ere, ondo egin dugun hori indartzen saiatu behar gara, hurrengoan hobeto egiteko.

5. Batzuetan norbere buruarekiko pigmaliona kaltegarria izan daiteke (Pigmalion negatiboa), zer egin kasu honetan?

Pigmalion negatiboen kasutan, egokiena, zure esperientzia on edo positiboetan oinarritu eta ahal duzuna sinetsi behar duzu; modu honetan, pigmalion efektu negatibo hori desagertuko da.

4.PRAKTIKA : HEZKIDETZA ETA GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIOA

1. Eusko Jaurlaritzako II Hezkidetza Plana irakurri eta erronka bakoitzari dagozkien gaiak zerrenda batean jasoko dira, GIDOI bat osatuz.

Erronka bakoitzari dagozkien gaiak honako hauek dira:

1. Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredu sakona aztertzea, genero ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktiketan sartuz, planteamendu integral bat eginez.

- a. Genero-ikuspegia kontuan izanik, curriculum berraztertzea
 - i. Curriculum ofizialak eta ezkutuko curriculumak funtsezko eragina dute genero sozializazioan.
 - ii. Curriculum esplizituan gizonen gertaerei, ezaugarriari eta esperientziari ematen zaie garrantzia.
 - iii. Balio maskulino eta femeninoen artean hierarkizazio bat ematen da, eskolak inplizituki ematen ditu (maskulinoak gailenduz).
 - iv. Gaitasunen garapenean oinarritutako curriculumak aukera ematen digu alderdi kognitiboaz gain, haratago dauden alderdiak lantzeko, balioesteko eta ebaluatzeko. Alderdi hauek lantzea funtsezkoa da ikasleen hezkuntza integralerako.
- b. Ikasliburuak eta material didaktikoak aukeratzeko orduan, inklusiboak eta hezkidetza lantzen dutenak aukeratzeko.
 - i. Gaur egungo ikasliburu eta material didaktikoak genero-estereotipoetan onarritzen dira.
 - ii. Gaur egungo testuliburuetan diskriminazioa nabari da: irudien koloretan, karakterizazioetan...
- c. Trebatzen jarraitzea, ikasleei buruz duten itxaropenaz jabetzeko.
 - i. Irakasleak ez dira kontziente generoari buruzko barneratuta ditugun uste inplizituek zer-nolako eragina duten ikasleen jarrera eta portaeran.
 - ii. Irakasleek desberdin tratatzen die neska zein mutilei.
 - iii. Irakasleen jarrera
 - iv. Gaur egun ohikoak dira neskenganako eraso zein jazarpenak.
 - v. Egoera aldatzeko ezinbestekoa da hezkuntza komunitateko kide guztiak hezkidetza-gaietan etengabe prestatzea.
- d. Espazioen erabileran genero analisia sartzeko
 - i. Jolastokiko espazioaren banaketa, genero ikuspegitik berantolatzeko beharra, espazioaren banaketa eta erabilera berraztertuz.
- e. Genero-ikuspegia aintzat hartuz, ebaluazioa berraztertzea
 - i. ikasleen anonimotasuna ezarri.
- f. Familien inplikazioa bilatzea hezkidetzan
 - i. Familien lankidetzaren funtsezkoa da.
 - ii. Haurren eskolatzeko prozesua aurreratu da.
 - iii. Aitekin modu orekatuan banatzea ere ezinbestekoa da.

iv. Modu integralean landu behar da.

2. *Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero- baldintzapenik gabe.*
 - a. Genero estereotipoak eragin handia dute oraindik ikasleen aukeretan, baita aukera akademikotan ere.
 - b. Mutilek alderdi zientifikotik gehien bat, neskak gizarte eta giza zientziak.
 - c. Lan apustua ondoren ere gehiene mutilen aldekoa da, ordainsarian ikus dezakegu.
 - d. Kanpo presiaok eragin handia aukeratzeko orduan (famialia, lagunak ...)
 - e. Inplizituki hainbat jarrera eta estereotipo sexista indutzen dira.

3. *Genero ikuspegia eskola porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzea, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea benetan unibertsal dela ziurtatzea.*
 - a. Mutilek neskek baino emaitza akademiko okerragoak izaten dituzte.
 - b. Jokabide disruptiboen kasuan, mutilen artean ohikoagoak dira: diziplina arazoak, jazarpen-arazoak, gatazkak konpontzeko trebetasun falta...
 - c. Oso garrantzitsua da mutilak zein maskulinitate eredutan eta neskak zein feminitate eredutan sozializatzen diren ikustea, modu honetan, beraiek ikasgelak dituzten jarrerak ulertu ahal izateko.
 - d. Irakasleek neska edo mutil izanda, beraiengan duten itxaropena ezberdina da eta honek eragina dauka ikasleen jokabidean.
 - e. Mutil langile eta zintzoaren eredua ez dagoenez ondo ikusita, maskulinitate eredua indartu egiten da.
 - f. Nesken eta mutilen gorputzaren garrantziaz azpimarratzen dute, hala ere, nesken sexu askatasuna mutilena baino urriagoa da.

4. *Harreman afektibo sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko heztea.*
 - a. Azken urte hauetan, sexu hezkuntzan aurrerapenak eman direla uka ezina da, izan ere, prestakuntza eta informazio gehiago dago eta alo honetan ere, balioak aldatu egin dira.
 - b. Neska eta mutilen artean jokabide ezberdinak ikusten dira.
 - c. Nerabe eta gazte gehienek modu osasungarrian integratzen dituzte sexu jarduerak eta horiekin lotutako sentimenduak.
 - d. Sexualitatearen eta afektibitatearen alorrean oinarritutako gaitasunak eskuratzea eskolak erraztu behar du.

5. *Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.*
 - a. Hezkuntzak genero-indarkeriari aurre egiteko beharra du. Hau aurrera eramateko, hezkidetzaz baliatuko gara.
 - b. Beharrezkoa da, genero estereotipoak apurtzea hezkidetzaren bitartez.
 - c. Hezkuntza sektorea funtsezko eragilea genero indarkeriari aurre hartzeko.

2. Institutuko Hezkidetzaren proiektuaren analisia burutuko da aurreko dokumentua (Eusko Jaurlaritzarena) kontuan hartuz.

Institutuko hezkidetzaren proiektua Eusko Jaurlaritzaren dokumentuarekin analizatzerako orduan, alde batetik, irakaslearen alderdia aztertu dugu, bestetik, ikaslearena eta familiarena azkenik. Esan beharra dago, ikastetxe honen hezkidetzaren planean, familiarean alderdiari ez zaiola behar beste garrantzi ematen. Hasteko, ikasturtean zehar familiei bidaltzen zaien informazio eta gonbitak ez direla nahikoak uste dugu; izan ere, horrekin ez dugu ziurtatzen familiek formakuntza hori jasotzen dutenik, ezta ere hezkidetzaren beraien semeekin lantzen dutenik.

Irakasleei dagokienez, hezkidetzaren proiektuan, landuko diren hainbat alderdi ezberdin aipatzen dira, esaterako, genero ikuspegia dokumentuetan lantzearena. Hala ere, ez du zehazten zer dokumentutan landuko diren. Hori gutxi balitz, lorpen adierazletzat, dokumentu hauen zerrenda soilik egitea ez dugu egokia ikusten. Hauek irakurri, landu eta guzti honen ebaluazio bat egin beharko litzatekeela uste dugu, benetan dokumentu hauek hezkidetzaren eraginkortasunez lantzen dutela ziurtatzeko.

Horrez gain, ikastetxean gertatzen diren gertakizun ezberdinak genero ikuspegitik aztertzea ere egokitzat ikusten dugu, ikastetxeko datu estatistikoak edukitzea garrantzitsua delako lanketa bat egin dezaten, baita ikastetxeko egoeraren berri izateko ere.

Irakasleei zuzenduriko hezkidetzaren proiektuaren alor hau, oso orokorra delakoan gaude. Hau da, oso azaleko lanketa bat egiten duela uste dugu. Zer landu behar den azaltzen duen arren, ez da zehazten zer eta nola landuko den zehazki. Gainera, landuko diren alderdiak ikasleengan hezkidetzaren oinarritutako jarrera bat izateko ez direla nahikoa iruditzen zaigu. Hau da, azaleko lanketa bat egiten da eta hezkidetzaren bezalako gaiak barneratu beharreko zerbait direla uste dugu.

Ikasleei dagokienez, genero irudiak deseraikitzeke hainbat puntu ezartzen ditu. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako txostenak adierazten duen bezala, maitasun erromantikoa, lanbidea, sexu-harremanak, indarkeria matxista, komunikabideek gai honi ematen dioten ikuspegia ... bezalako gaiak lantzeko egokiak ikusten ditugu. Esaterako, generoari loturiko lanbideak eta betebeharrak, generoarekin loturiko diferentziak, genero indarkeriaren prebentzioa, maitasun erromantikoa eta harreman afektibo-sexualak lantzen dira. Hala ere, gure ustetan garrantzi gehiegi ematen zaio lanbide eta orientazio laboral ez sexistari eta bigarren plano batean uzten dira gainontzeko alderdi gehienak.

Kontuan hartu behar da, lanbide eta orientazio laborala sexista izatearen erroak sexismoan eta matxismoan daudela, beraz, hau ekiditeko lehenik beharrezkoa da genero rola, harreman afektibo-sexual zapaltzaileak, maitasun erromantikoa eta abar deseraikitzea.

Beste arlo batean zentratzen bagara, geure jarreretan eta pentsatzeko moduan eragiten du komunikabideek ematen diguten informazioa emateko moduak. Hori dela eta, askotan indarkeria matxistaren aurrean ikusi besterik ez dago hitzak aldatuz azaltzen diguten informazioa eta gertakizunaren ideia nola aldatzen duten. Gizon batek emaztea erailtzen duenean, komunikabide gehienetan “emakume bat hil da bere gizonaren eskuetan” esaten da, “gizon batek bere emaztea hil du” esan beharrean. Beraz, komunikabideen garrantzia eta honek gure pentsatzeko eran duen eragina nabaria da. Genero ikuspegia beraz,

komunikabideak aztertuz ere lantzea ezinbestekoa dela uste dugu, komunikabideak ere faktore garrantzitsua baitira ikasleengan genero rola eta jarrera misoginoak barneratzerako orduan. Hezkidetza proiektu honek Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen Hezkidetza Planean aipatzen diren ia gai garrantzitsu guztiak barnebiltzen dituen arren, komunikabideen inguruko lanketarik ez da proposatzen.

Horrez gain, ikasleen parte-hartzea bultzatzen den arren, jarduera guzti hauen arduradunak edo dinamizatzailleak, tutoreak eta orientatzaileak direla kontuan hartu behar da. Argi dago arlo honetan, beste askotan bezala, jarduerak zuzentzen dituzten pertsonak hezkidetza eredu izan behar direla. Gerta liteke irakasle eta orientatzaile horiek hezkidetzaren inguruan informazioa izatea, eta beraien pentsaera guztiz berdintasunaren aldekoa izatea. Hala eta guztiz ere, beraien pentsaera berdintasunaren aldekoa izanda ere, guztiok, inkontzienteki jarrera matxistak barneratuta izaten ohi ditugu. Honen arrazoi nagusia, gizarte matxista batean bizi garela dela esango genuke. Hori horrela, ezinbestekoa dela iruditzen zaigu gizarte matxista hau aldatzea nahi baldin badugu, lehenik eta behin gu geu garela gizarte horretako partaide ohartaraztea; eta hori aldatzeko, aldaketak gugandik hasi behar duela konturatzea.

Beraz, beharrezkoa ikusten dugu irakasle eta orientatzaileek aurre-barne lanketa bat egitea. Izan ere, hauek ez badute lehenagoko hezkidetzaren inguruko formakuntza bat jaso ez dute ondo jakingo ikasleek zein oinarri jaso behar dituzten hezkidetza printzipio horiek ondo barneratzeko.

Aurretik esan bezala, ikas komunitatearen parte-hartzea sustatzea eta ikasleekin lanketa bat egitea proposatzen da, eta hori oso ondo dago. Baina proposamen egitea ez da nahikoa, proposatu dena aurrera eman den eta prozesua ikasleengan eraginkorra izan den ala izan ikusi behar da ondoren, bestela, alperrikakoa izango da hezkidetza proiektu osoa. Hau horrela izanik, ezinbestekoa da lorpen adierazleak ondo finkatzea, lehenago hainbat adibideetan ikusi dugun bezala. Adibide gehiago jartzearren, proiektuan irakasleek ikasleen artean hezkidetzaren aurkako komentarioak neutralizatzeko jarduera bat proposatzen zaigu. Hemen, ikasleekin lanketa bat egitea planteatzen da, ikasleentzat zer den mingarria eta horri nola aurre egin jakiteko. Jarduera oso egokia den arren, lorpen adierazlea ondorengoa da: “identifikatu diren komentarioen zerrenda”. Azaldu bezala, lorpen adierazle honek komentarioen inguruan hitz egin dela soilik ziurtatzen du, baina ez hauei aurre egiteko lanketa bat egin denik.

Aipatutakoa gutxi izango balitz, lorpen adierazleen garrantzia ulertzeko beste adibide argi bat ikus dezakegu: “Gelako eta ikastetxeko arauak genero ikuspegitik sortu ikasturte hasieran”. Jarduera garrantzitsua dugu hau, baina proiektu honek jardueraren lorpen adierazletzat kartelak eginda dauden ala ez begiratzea proposatzen du. Zertarako balioko digu arauen kartelak eginda egotea, ikasleentzat hauek ikusezinak badira? Jarduera hau alperrikakoa izan ez dadin, ezinbestekoa izango da ezarritako arau horiek errespetatzen diren ala ez ebaluatzea, baita ikasleek hauek barneratuta dituzten, hau da, hauek naturalki betetzen dituzten ala ez behatzea ere.

Amaitzeko, denbora aldetik ordu gutxi ematen direla iruditzen zaigu hezkidetza lanketa integral bat egin ahal izateko. Izan ere, hainbat jarduera hilabete batean, tutoretza orduetan soilik lantzen dira. Horrek, lanketa hori astean ordubete eta hilean lau ordu bakarrik egitea

suposatuko luke. Honela ez da bermatzen hezkidetzaren lanketa sakon bat ematen denik, ez eta jarraitasun egoki bat ematen zaionik ere.

3. DBHko Institutuko Hezkidetzaren Proiektuan, bost helburu, kronograma eta ebaluazio irizpideak laburbiltzen dira. Bide batez, Irakasle (tutoretzan, arloetan, orokorra), Guraso, Irakasle eta Talde Eragilearekin burutuko diren jarduerak jasotzen dira. Hauetako talde bakoitzari zuzenduriko jardueretik bat hautatuko da eta hobekuntza proposamenak gehituko zaizkio. Guztira 4 dinamika garatuko dira. Hauek justifikatzeko e-gelako dokumentuak erabiliko dira.

Irakasleak: Prestakuntza antolatu irakasle talde eragileak iradokitako gaien inguruan

Familia: Eskolaz kanpoko ekintzen azterketa genero ikuspegitik egin

Ikasleak: Berdintasuna eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzea afektibitate ikuspuntutik.

Ikastetxea: Antolatzen diren gelako eta ikastetxeko arauak genero ikuspegitik sortu

IRAKASLEAK:

Irakasleak hitzak dioen bezala, irakasten duen pertsona, ezinbestekotzat ikusten dugu genero-berdintasuna-ren inguruan formatuak egotea eta kontzeptu edo jarrera hauek barneratuak izatea. Izan ere, kontuan izan behar dugu, hauek direla neurri handi batean ikasleen erreferenteak, gainontzeko hezkuntza komunitatea ahaztu gabe. Beraz, pertsona hauek duten munduarekiko ikuspegia orokorrean, beraien rolak, ikasleekiko duten jarrera, hartzen duten erabakiak, gorputz-espresioak... ikasleekiko eragin zuzena du.

Eskolako eremuan, hezkidetzaren bultzatzeko asmoz, DBHko Institutuko Hezkidetzaren proiektuan irakasleekin genero ikuspegia lantzea proposatzen da. Hala, hezkuntza komunitatearen hausnarketa gunea indartzea proposatzen da, etengabeko sentsibilizazioa ahaztu gabe. Horretarako, lehenik eta behin, ikasgaietako programazioetan txertatutako ekintzak mantentzea proposatzen da, bai arloetan eta baita tutoretzatan ere. Arlo honi dagokionez, ebaluazio bakoitzean egindako ekimenen taula begiratu gero, gure iritziz, oso positiboa da ikasleekin tutoretza bidez landu nahi dena. Uste dugu, estimulu ezberdin hauek (bideoek esaterako) ikasleengan eragiten dutena oso aberasgarria izan daitekeela. Hala ere, askotan pelikula bat ikustearekin soilik, ez ditugu ideiak horrenbeste baloratzen. Horregatik, uste dugu, estimulu hauek ikusteaz haratago, hauen lanketa egitea ere ezinbestekoa dela. Hala, ideiak gehiago barnetzatn baititugu. Adibidez, tratu txarren inguruko bideo edo pelikula bat ikusi ondoren, ikasleen artean honen inguruan hitz egitea, norberaren esperientzietan hausnartzea eta nahi izanez gero, hauen inguruan hitz egitea ezinbestekoa dela. Beraz, hobetze bezala, hauek lantzea proposatzen dugu. Behin hau esanda, uste dugu, lanketa honetan irakasleak izan behar duen jarrera, motibazioa, giro egokia sortzeko gaitasuna, galdera egokiak erabakitzea... ezinbestekoa dela. Horretarako, beharrezkoa ikusten dugu, lehenik eta behin, irakasleekin lanketa jarraitu bat egitea, prozesu jarrai bat, momentu orokoa, amaierarik jarri gabe. Izan ere, feminismoaren kontua, etengabe landu beharreko zerbait dela uste dugu.

Bestetik, irakasle talde eragilea eratzea proposatzen da proiektuan. Hau ere, aurreko proposamena bezala, beharrezkotzat ikusten dugu eta uste dugu, eskola baten organigramaren barruan, “Genero-berdintasunaren talde eragilea” edo “Parekidetasuna lantaldea” bezala izendatuta dagoen talderen bat egon behar dela. Hala ere, hau hankamotz gelditzearen arriskua ere ikusten dugu. Izan ere, kasu askotan, gertatzen da, organigrama baten barruan, talde ezberdinak eratzea eta azkenean, talde bakoitza bere gaiaz soilik arduratzea. Hau da, adibide batez azalduko dugu: baliteke, genero-berdintasuna soilik talde eragilearen gain erortzea, gainontzeko irakasleei zuzenki eragin gabe. Honek, genero-berdintasuna zeharlerro bezala landu behar den gai bat izanik, hutsuneak sor ditzakeela uste dugu. Beraz, gure hobetze proposamena honako hau izango litzateke: irakasle talde eragilea eratzea, baina, talde honen zereginak koordinaziora soilik mugatzea. Hau da, irakasle guztiek landu beharreko prozesu bat izatea genero-berdintasunarena. Talde ezberdinak egotea “Genero berdintasuna lantzen duen taldea” ren barruan (izen hau esateko modu bat da, izen bar jartzearren) eta talde eragilea, talde handi honen organigramaren goi aldean dagoena izatea, hau da, guztia koordinatzen duena, baina ez bakarrik hauek “Genero berdintasuna lantzen duen taldea”-ko kideak.

Proiektuaren ondorengo puntuan, irakasle talde eragileak iradokitako gaien inguruan prestakuntza antolatzea esaten da. Formakuntza hau emateaz, aurreko berdinduz eskola arduratzea esaten da. Gure iritziz, etengabeko formakuntza gako garrantzitsua da gai honetan. Izan ere, gure jarreraren barnera heldu behar gara, oinarrira, eta beraz ez da egun batetik bestera egiteko kontu bat. Ulertzen dugu, berdinduz bezalako eskola bat kontratatzea ikastetxeak. Baina, zein formakuntza eman behar den zehazterako orduan, irakasle guztiek erabaki behar dutela uste dugu. Hala, kurtso hasieran esaterako, parekidetasunaren inguruan irakasle guztiek bilera bat egitea proposatzen dugu, bertan urte horretarako jartzen diren helburuak zehazteko, burutuko diren ekintzen ideia-zaparrada bat egiteko eta norberaren buruari jartzen diogun erronkak zehazteko. Modu honetara, irakasleen egoera zein den islatzeko aukera izango dugu eta norberak bere buruan pentsatuz eta bere burua ikasleen aurrean erreferentetzat ikusiz, zerren inguruan prestatzeko beharra duen identifikatuko dute.

Azkenik, “Berdin-gune” bezala deituriko blogaren aurkezpena egin eta irakasle guztiak bertan parte hartzera gonbidatzea aipatzen da testuan, hau irailan burutzeko. Gaur egun, geroz eta gehiago IKT-ak erabiltzen ditugun garai honetan, horrelako egitasmoak geroz eta gehiago eramaten dira aurrea. Egia esan, ideia ona iruditzen zaigu, baina irakasleen arteko eztabaidak, hausnarketak, iritzi ezberdinen arteko talkak... bertan soilik ematea gutxi iruditzen zaigu. Honetaz gain, aurrez-aurreko eztabaida-saioak, hausnarketarako espazioak, formatzeko momentuak... hartzea ezinbestekotzat ikusten dugu. Hau da, espazio hauen osagarri izan dadila bloga. Beraz, bi hauek uztartzea izango litzateke gure hobetze proposamena.

Hobetze proposamenak alde batera utzita, irakasleekin landu beharreko dinamiken artean eskasia nabaritu dugu. Alde horretatik, etengabeko formakuntzaren aldarrikatzen dugu, prozesu luze baten hasiera hain zuzen ere. Bide horretik, proposatzen dugu irakasle guztiek burutuko duten honako dinamika hau. Honekin ez dugu esan nahi, irakasle guztiek batera egin behar dutenik, izan ere, talde txikitik egitea aberasgarriagoa ikusten dugu. Dinamika honen helburua, irakasleen genero-berdintasunaren inguruan beraien burua kokatzea da, modu honetan, beraien jarreraren kontzientzia hartzeko eta hauek aldatzeko tresnak eskuratzeko. Saio honetan, lehenik eta behin, genero ikuspegia aintzat harturik,

norberak bere bizitzako zuhaitza marraztuko du, bera momentu honetan zergatik den horrelakoa markatu duten erabakiak aipatuz. Honekin, denok ikusiko dugu gure bizitzako zuhaitzean, neska ala mutil izate hutsak, adar bat edo bestea hartzeraren eraman gaituela. Kontzientzia hartuko dugu sexuak duen garrantziaz eta ondorioz, generoak dakarren jarreraz, gustuez, nahiez... Honen ondoren, 5 pertsona inguruko taldeetan jarrita, egoera ezberdinen inguruan hartuko genukeen jokaeraz hitz egingo dugu. Adibidez, neska bat negarrez dagoenean zer egingo genuke hitz egingo dugu. Ondoren, mutil bat negarrez dagoenean zer esaten diogun islatuko dugu. Honekin, konturatuko gara gure jarrera ez dela berdina negarrez dagoen pertsona neska edo mutil izan. Horrela, gure jarreraren kontzientzia hartuta, egunerokotasunean egoera hauen aurrean gure jarrera aldatzeko tresnak eskuratuko ditugu.

Saio hau, genero-berdintasunaren prozesu luzearen hasiera bezala ikusten dugu, hasieran landu beharreko zerbaitekin, oinarritzakoa. Beraz, dinamika hau, hasieran egiteko planteatzen dugu.

IKASLEAK:

Ikasleekin berdintasuna eta genero indarkeriaren prebentzioa harreman afektibo-sexualen ikuspuntutik lantzeko, hezkidetzaren proiektu honen Maiatzaren 17ko LGBT nazioarteko egunerako ekintzaren bat antolatzea proposatzen du. Dena den, beharrezkotzat ikusten dugu horretaz eta hainbat hitzaldiz gain, ikasleen harreman afektibo-sexualen inguruan lanketa sakonago bat egitea hainbat ekintzen bidez.

Lehenik eta behin, hezkidetzaren lanketa sakon bat hasteko ezinbestekoa da ikasleen eta hauen inguruko harreman ereduak aztertzea. Eusko Jaurlaritzako Hezkidetzaren Planak azaltzen digun moduan, ohikoa da erakarpena eta desira menderatzearekin, kontrolarekin eta sufrimenduari lotzea. Modu honetan, neskek gehienetan beren espazioari eta erabakiak hartzeko eskubideari uko egiten diote. Emakumearen Institutuko hainbat ikerketa kezkarriek dioten bezala; inkestatutako mutilen % 30,7k uste du ez dela tratatu txarra bikotekideari "ez duela ezer balio esatea"; beste % 22,8k iritzi bera du "beldurra sentiarazteari dagokionez"; eta % 35ek, berriz, "egiten duen guztia kontrolatzea" dela-eta.

Baina nondik datozkigu hain barneratuak ditugun jarrera eta pentsaera matxista hauek? Ikasleei patriarkatuak; hau da, bizi garen sistema matxista eta misogino honek, nola funtzionatzen duen azaltzea beharrezkotzat dugu. Horretarako, baliagarria izango litzatekeelarik ikasleek etengabe eredu moduan dituzten publizitatea, filmak, nobelak, hezkuntza eta pornografia generoaren ikuspegitik aztertzea eta baita hauen helburua zein den pentsatzea. Aldi berean, geure inguruan etengabe azaltzen zaizkigun maitasun erromantikoen harremanak (lesbiana, gay, bi, trans... edo delako harreman-motak izanik) ere deseraikitzea komenigarria litzateke. Guzti hau lantzeko, filma zatiak, iragarki ezberdinak eta abar ikustea eta hauen inguruan eztabaidatzea proposatzen dugu.

Behin harreman afektibo-sexual kaltegarri horien erroak zein diren eta nondik datozen ikusita, azaldutako guztia ulertu den ala ez jakiteko "PUZZLE ERRALDOIA" egitea da gure proposamena. Ikasleei puzzlea osatuko duten hitzak eman eta beraiek guztien artean osatu beharko dute. Puzzleak bost hitz gako izango ditu: GIZONEN PRIBILEGIOIAK MANTENTZEA, EMAKUMEEN ZAPALKUNTZA, GIZARTEA, GENERO ROLAK ETA MAITASUN ERROMANTIKOA. Horien barruan, beste hainbat hitz ere sailkatu beharko dituzte: publizitatea, emakume ahulak, filmak, sufrimendua, pertsonalitatearen anulazioa,

hezkuntza, gizon agresiboak, nobelak, posesioa, bortxaketak, pornografia, erailketak, dependentzia eta kontrola.

Jardueraren helburuak bete diren ala ez ikusi ahal izateko, hau da, ikasleek harreman afektibo-sexual kaltegarriak zein diren eta nondik datozen ondo ikasi duten ala ez jakiteko, lorpen adierazletzat hartuko dugu puzzle erraldoiaren osaketa egokia izan den.

Honetaz gain, jarrera guzti hauek analizatzea eta hein batean ohitura eta pentsaera horiek deseraikitzea izango da proposatu dugun jarduera honen helburua. Ikasleei aipatutako estadistika horien informazioa, eta gazteen arteko harreman afektibo-sexualen inguruko azalpenak eman ondoren, beraien bizitzak eta harremanak aztertzerako eramango ditugu, ondorengo galderak proposatuz: “Nolako harreman afektibo-sexualak izaten ditut? Hauek osasuntsuak dira niretzako? Noizbat derrigorrean egin behar izan al dut gustuko ez nuen zerbait? Sufritu egiten dut?”. Galdera guzti hauek nerabeek izaten dituzten harremanetan jartzen dute oinarria, hau da, maitasun erromantikoak duen eraginean. Gazteen arteko harremanak zer printzipiotan oinarritzen diren ikustea eta ikasleen erreflexioa bultzatzea dira gure helburuak. Honetaz gain, beraien harremanetan izaten dituzten hiru ekintza edo jarrera oker hobetzeko erronka jarriko diegu.

FAMILIA:

Familiarekin hezkidetzaren aldeko lanketa egitea behar beharrezkoa dela uste dugu, azken baten, gizabanakoen lehen agente soziala baita familia eta ohitura asko ikasten dira bertan. Beraz, beharrezkoa da gurasoekin hezkidetzaren inguruko lanketa egitea, ondoren seme-alabekin lantzeko. Horretaz gain, pertsonalki beraientzako ere erabilgarria den zerbait dugu.

Familiarekin lanketa egiteko uste dugu Azaroak 25 (Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna) egunean beharrezkoa dela, ekintzaren bat egitea. Familiak batuz bai guraso eta seme-alaba irakurketa bat egitea proposatu da, “ el monstruo” liburuarena hain zuzen ere. Liburuak senar baten inguruan hitz egiten du, bere semeak eta emaztea jipoitzen ditu. Irakurketa honen bitartez saiatuko gara genero indarkerira bideratzen eta denon artean konklusioak ateratzen, ipuin honen inguruan. Uste dugu, liburu honek egoera helarazteko duen modua eraginkorra dela haurretan, baina beharrezkoa ikusten dugu ere familia guztiaren artean egitea lanketa hau. Seme alaba gaztetxoekin izango litzateke.

Beste ekintza batzuekin jarraitzeko, honako hau gurasoekin bakarrik izango litzateke. Haurren filmak aztertzean datza, adibidez, ezagunak diren bezala Dysneiko, hainbat horien artean: Edurnezuri, errauskiñe, sirenatxoa... aztertzerako orduan genero rolak kolokan jartzea da helburua, gehienbat emakume estereotipatuarena. Lanketa honen helburua gurasoak kontzientzia da, etxean haurrari TV pizterakoan edo edozein entretenimenduetan zer genero arau egoten diren kontuan hartzeko eta beste aukera batzuen alde apustu egiteko, beste hainbat alternatiba baitaude.

IKASTETXEA

Ikasle eta irakasleek genero ikuspegia landu dezaten, ezinbestekoa da ikastetxeak berak ere genero ikuspegia kontuan izan eta ikuspegi horretatik sorturiko arauak izatea. Hau da, Eusko Jaurlaritzako hezkidetzaren planean azaltzen den bezala, eskola-sisteman, sexismoa, genero-estereotipoak gertatzen dira. Kontutan izan behar dugu, sarri, hau, ikastetxearen antolamendu nahiz irakasleen jarreraren ondorio izan daitezkeela. Hori dela eta, garrantzitsua ikusten dugu ikastetxeko arauak genero ikuspegitik sorturikoak izatea.

Hori horrela izan dadin, genero ikuspegia aintzat hartzen duen curriculum bat ezartzea beharrezkoa da, baina horrekin ez da nahikoa, ikastetxeak aukeratu beharreko material didaktiko nahiz liburuak ere hezkidetzaren aldekoak izan behar dira, baldin eta ikastetxea hezkidetzaileria izatea nahi baldin badugu.

Bestalde, ikastetxeak egoki funtzionatu eta jarrera nahiz harreman berdinkide bat egon ahal izateko, beharrezkoa ikusten dugu genero ikuspegia kontutan hartuz, zenbait arau ezartzea. Horretarako, honako lanketa hau egingo dugu:

Ikastetxe nahiz gelako arauak izanik, bertan ikasleak ez ezik, irakasleak ere egoten direla kontuan izanik, guztiek adostu eta ezarri beharreko puntu bat izan behar da. Hori horrela, ikasturtearen lehen astean, gelan zer nolako arauak edukitzea gustatuko litzaieken hausnartu eta landu beharko dute. Zertara jolastea gustatzen zaien, zer nolako jolasak edota material didaktikoa izatea gustatuko litzaieken. Jarraian, ikasleek eginiko proposamen eta iritzien elkartruke hauek, irakasleek baloratu beharko dituzte eta aztertu ea parekidetasunik azaltzen duten.

Gelan ez ezik, gelatik kanpo ere genero ikuspegia kontutan hartu beharra dauka ikastetxeak. Horretarako, jolastokian ere zer nolako arauak ezarri beharko dituzten adostu behar da. Hala, irakasleak bildu eta jolastokiaren espazioari emango zaion erabileraren inguruan hitz egingo dute: zer eremutan zertara jolastu, zein egunetan zertara jolastu ... Guzti hori ere, beti ere, genero ikuspegia kontuan izanik, beraien arteko eztabaiden artean adostu beharko dute.

Guzti honen bitartez, ikastetxeak genero-estereotipo hauek apurtu eta hezkuntza berdinkideago bat sustatu nahi du. Izan ere, suposatzen da ikastetxeak modu honetako lanketak egitearen bitartez, gaur egun gizartearen dauden rol ezberdinak hautuzkeela. Beraz, irakasle, ikasle eta familiak ez ezik, ikastetxeak berak ere, genero ikuspegia kontuan hartzen duen jarrera bat izatea eta ondorioz, mota hauetako arauak hartzea ezinbestekoa dela deritzogu.

5.PRAKTIKA : NARRAZIO AUTOBIOGRAFIKOA

Lehen Hezkuntza, Oñatiko Txantxiku Ikastolan egin nuen. Lehen hezkuntzak 6 maila ezberdin zituen eta maila bakoitza bi gelatan banatzen zen. Ikasgela bakoitzean neska-mutil kopurua antzekoa zen eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan edota batxilergoan ez bezala, irakasle bakarra genuen ikasgai guztietarako, ingelesa, gorputz hezkuntza eta muskarako izan ezik. Liburuen bitartez ikasten bagenuen ere, askotan proiektu ezberdinak eta irteera ezberdinak burutzen genituen naturarekin eta errealitatearekin kontaktuan jartzeko. Esaterako, “ugalketa” gaia eman genuenean, bi arrautza jarri genituen eta horiek nola eboluzionatu eta ondoren nola txita bihurtzen ziren ikusteko beta izan genuen. Hala ere, esan bezala, liburuen bitartez eta memorizatuz ikasi behar izaten genuen, sarritan, azterketa baten bitartez ebaluatuz. Hori horrela izanik, bi ikaskuntza motak aurrera eramaten genituela esan nezake; batetik, ikaskuntza esanguratsua, eta bestetik, ikaskuntza errepikakorra. Gehienbat, aurrera eramaten genuen ikaskuntza mota errepikakorra zela esan dezaket; izan ere, biderketak, definizioak, eta orotariko informazioa memorizatu behar izaten genuen. Aldiz, ikaskuntza esanguratsua, noizbehinka lantzen genuela esango nuke, mapa kontzeptualak nahiz kantuak oso aldizka burutzen bai genituen.

Lehen hezkuntzan zer nolako metodologia aurrera eramaten genuen ikusita, Ausubelek dioenarekin bat ez datorren teoria aurrera eramaten genuela esan dezaket, izan ere, ikastea ulertzea dela aipatzen du. Guk, ordea, ez genuen halakorik egiten. Irakasleak emandako materia ikasi, memorizatu eta ondoren, azterketa baten bitartez ebaluatzen bai gintuzten. Alabaina, aipatu behar da, oso noizean behin, ulertuz ikasten genuela; esaterako, uraren zikloa ikasi behar izan genuenean.

Bestalde, ikasle onen arteko harremana parekoa zen; hau da, aurrerago banatzen joan izan garen arren (neskak alde batetik eta mutilak bestetik), lehen hezkuntzako etapa honetan guztiok elkarrekin jolasten ginen. Jolas orduan, esaterako, soka-saltoan edota futboleko guztiok elkarrekin aritzen ginen. Hala ere, hori urteetan zehar galtzen joan den zerbait izan da eta pixkanaka separatu joan gara. Hori horrela, Vigotskik dioen bezala, kideen arteko harremanak eragina duela hezigaiarengan ikusi dugu. Izan ere, besteak beste, klasekideekin izandako harremanaren ondorioz, gizarteratzeko prozesu horretan eragina izan duelakoan nago. Beraz, harreman horiek izateak, familia bateko kide izatea, etxebizitza duin bat eta lana edukitzeak bezalaxe, zuzenki eragina izan duela esan nezake gizarteratzeko prozesu honetan. Gainera, harreman hauek, bizitzaren lehen urteetan ezarritako harremanak izanik, garrantzi handia izan dute nire bizitzan. Eskolan nahiz eskolaz kanpoko orduetan ere elkarrekin aritzen ginen eta horrek izugarritzko eragina izan duela esango nuke. Hori gutxi balitz, harreman hauen bitartez, beste zenbait trebetasun sozial ere bereganatu ditudala esango nuke; hala nola, elkarrizketa bat aurrera eramaten ikastea, baita entzuten ikasi ere eta baita eskerrak eman edota barkamena eskatzen ikasi ere.

6.PRAKTIKA: IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA EREDUAK

MENTES PELIGROSAS

1. Helburuak eta edukiak.

Hezitzailearen helburua ikasleek ikastea eta hauek hezkuntzaren garrantziaz jabetzea da. Izan ere, aurretik ez diote garrantzirik ematen hezkuntzari. Bestalde, irakasle honek lantzen dituen edukiak literatura eta poesia dira, baina hauetaz gain, emozioak eta sentimenduak ere asko lantzen ditu ikasleekin.

2. Zein da hezitzailearen rola?

Hezitzaileak ikasleekin hartzen duen jarrera asertiboa eta lagunkoia da, ikasleen oso gertukoa. Ikasleen testuingurura eta estilora (bai hitz egiteko, janzteko, ikasteko, pentsatzeko... eredura) egokitzen da.

3. Zein da erabiltzen den metodologia?

Hezitzaileak erabiltzen duen metodologia eredu dialogikoan oinarritzen da. Modu honetan, ikasleen parte hartzea bilatzen du, eta horretaz gain, haien interesa eta motibazioa pizten saiatzen da.

4. Nola antolatzen du irakaskuntza-ikaskuntza testuingurua?

Pelikulan zehar ikusten da irakaslea ikasleen testuingurura moldatzen saiatzen dela. Adibide garbia da bere janzkera. Hasiara batean, janzten dituen arropak irakasle batenak bezalakoak dira, hau da, autoritatea markatzen dutenak. Denborarekin ordea, bere janzkera aldatu egiten du eta horrela, ikasgelara txuparekin eta joaten hasten da, modu honetan, ikasleenganako gertutasuna adierazten du. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu horretan, poesiari ere berebiziko garrantzia ematen dio. Hau ikasleen bizietara moldatzen du, beraiek ere baliagarria dela senti dezaten. Modu honetan, ikasleengan heltzea lortzen du eta beraiek ere baliagarritzat ikusten dute.

5. Zein da hezigaien rola?

Hezigaien artean, jarrera interes gabekoa nabari da eta horretaz gain, beraien rola “malotearena” dela esango genuke. Hala ere, denborarekin, hezitzaileak lortzen du jarrera hori aldatzea eta modu honetan, aurretik aipatu bezala, poesiarekiko interesa piztea lortzen du. Honetaz gain, hezigaien ikasteko motibazioa ere asko handitzen da.

6. Zer ikasi dugu?

Pelikula honen bidez, gauza ezberdin asko ikasi ditugu, baina, ideia bat aipatu nahi dugu. Hezitzaileak hezigaien testuingurura moldatzeko beharra da ikasi dugun gauza garrantzitsuena. Hau da, irakaslea hezigaien testuingurura moldatzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, arrazoi ezberdinengatik: hezigaiekin konektatzeko, beraien interesa eta motibazioa pizteko, beraien jarreran aldaketak emateko... Honetaz gain, aipatzekoa iruditu zaigu baita ere, Estatu Batuetako arrazakeriak klase sozialetan duen eragina. Izan ere, ikasgelan denak dira azal beltzekoak eta azal zuriko oso gutxi ageri ziren. Gainera, azal beltzeko horiek klase baxukoak izanen dira horrelako ikastetxeetan eta azal zurikoak berriz, beste hezkuntza mota bat hartzen dute, klase altukoa, alegia. Pelikula honetan, beste behin ere, modu inplizituan bada ere, “amerikar ametsa” islatzen dela iruditu zaigu.

7.PRAKTIKA: KONSTRUKTIBISMOA-AUSUBEL

Konstruktibismoak ikaskuntzan aplikapen handia duen ikuspegia dela esan dezakegu. Jokabideaz gain, konstruktibismoak, garrantzia handia ematen dio ikaslearen ezagueraren antolamendu eta egiturari. Konstruktibismoa ikaslearen garapen mailatik abiatzen da eta ikaste esanguratsuen erainkuntza zihurtatzea du helburu, horrela, ikasleek bere kabuz moldatzea ahalbidetzen du. Horretaz gain, ikasleek beren ezagutza eskemak aldatzea lortzen du, hots, ezagutza berrien eta aurretiazko ezagutzen arteko lotura eskemak eta harremanak sortzea.

Ausubel autore konstruktibista da, bere irakaskuntza- ikaskuntza metodologia konstruktibista da. Konstruktibismoaren aurako jarrera hartu zuen Ausubelek, garai hortan gailentzen zen korrante psikologikoa. Ausubelen teoria hori lantzeko asmoz, 3 adibide hauek aztertzeraz jo dugu.

1.GALDERA

1. ADIBIDEA: **Después de estudiar la respiracion de los peces, alumnos de 6º capaces de decir “El pez de colores respira por las branquias, absorbiendo oxígeno disuelto en el agua y expulsando el gas carbónico”. Se propusieron profundizar sobre los peces de colores vivos y muertos. Lo primero que hicieron fue disecar un pez de colores muerto. Preguntados por qué argumentaron que “para ver donde tenía los pulmones”.**

Arrainen arnasketa prozesua aztertzen ari dira. Horretarako, ikasleetako batek arrain bat hartu eta irekitzea proposatzen du, arrain horren zakatz eta birikiak aztertu eta zehatz-mehatz ikusi ahal izateko. Harrerazko ikaskuntza bat ematen da; izan ere, bereganatzen dute baina ez dute ulertzen. Izan ere, betidanik entzun izan dute birikiak existitu izan direla, badakite zerbait horren inguruan, beraz, disonantzia kognitiboa ematen dela esan genezake, zerbait jakin arren bi ideien arteko tentsioa edo bateraezintasuna ageria da. Hala ere, aurretik duen informazio hori ez duela modu esanguratsuan ikasi esan dezakegu; aurretik esan bezala, birikak eta zakatzak bizidunek badituztela eta hauen existentzia badagoela jakin badakiten arren, kontzeptu berri hori aurkikuntza modu batean ikasten ari da, ikasle hauek ikaste mekanikoa eta oroimen hutsukea erabili dute, hots, kontzeptua buruz ikasi, loturak egin gabe. Prozesu horretan dago; eragiketa konkretuen aldia oso garrantzitsua da, baldintzatzen duelako.

2. ADIBIDEA: **Un chico de 2º de ESO comentó un día en clase de Geografía: “¿entonces el río Nilo de Geografía es el mismo río Nilo de Historia y el mismo río de Religión?”. La profesora se quedó de una pieza, pero asintió, lógicamente. Su sorpresa fue aún mayor cuando más de un compañero de aquel dijo: “Ah, ¿si?”.**

Adibide honetan, Nilo ibaiarekin, antzeko zerbait gertatzen da. Ez dutela modu esanguratsuan ikasi esan dezakegu; izan ere, asignatura ezberdinetan banatu dituzte eta ez dute guztia osotasun batean, loturak eginez ikasi.

Hori horrela, ikasleek sorpresa handia hartu dute, ez dakitelako ikasgai batean eta bestean ikasitakoak gauza bera direla eta ikasgai baten eta bestearen artean erlazio edo loturak

daudela. Hori ekiditeko, batetik, DILAN-a bezalako lanak egitea egoki legoke. Kasu honetan, erreka bat ezagutzen duten galdetu beharko genieke. Hau da, aurretiazko ezaguerak landuko genituzke. Bestetik, honen inguruko proiektu bat egitea edukiko genuke. Beraz, egoera honetan falta dena, hezitzaileek aurretiazko ideiak jasotzea izango litzateke, ikasleek aurretiazko ideiak izango dituztelako.

3. **ADIBIDEA: Una niña de 5º, que hoy conocéis como psicóloga, estudiaba encantada todos os sistemas y subsistemas corporales (circulatorio, digestivo, excretor, respiratorio, motriz...) estaba disfrutando con tantas cosas nuevas y las aprendió muy bien, de modo que era incluso capaz de explicarlas a sus compañeras. Pues bien, nuestra amiga un día de aquellos planteó a una compañera: “ya sabemos dónde están los huesos, los músculos, los órganos digestivos, la piel, las arterias... Pero ¿y la carne?, ¿dónde está la carne?”. No sólo no lo sabía, ninguna de sus compañeras supo responderle.**

Irakaskuntza-ikaskuntza egoera bat da honako hau. Hezurak, giharrak, azala ... ikasi zituzten, baina haragia non dagoen galdetzen du. Beraz, une batean hori galdetu eta inork halakorik erantzuten ez duela ikusi dugu. Lehenengo adibidean bezala, honako honetan ere gauza bera gertatzen dela esan dezakegu. Hau da, harrerako ikaskuntza bat jaso dutela, baina osotasun batean landu ez denez, ez dietela ulertzerik eman haragia ere horren parte denik ikusi dugu. Hori horrela, modu errepikakor batean ikasi dutela esan dezakegu, gaika, guztia osotasun batean ikasi beharrean eta gaien arteko erlazioak egin beharrean. Beraz, harrerazko ikaskuntza errepikakor bat eman dela hemen esan dezakegu, lotura logikoak egitea falta zitzaielarik. Hau da, kontzeptuen arteko erlazioa falta da.

2. GALDERA

Lehen hezkuntza eta DBHn eskemak sortzerako orduan ezberdina da, hau da, lehen hezkuntzan kontzeptuen artean ez dira erlazioak egiten, gai bat ikastean, gai hau bakuntzat hartzen da, adibidez, Nilori buruz hitz egitean alderdi erlijioso batetik emanda, ez da konturatzen historiako Nilo bera dela. Lehen hezkuntzan oinarritzko ezagutza kontzeptuak jasotzen dira, adibidez, idazketa, gramatika, matematikak... (hauen oinarria) DBH-n gai horien inguruan sakondu egiten da eta loturak sortzen dira.

Bigarren hezkuntza edo DBHn kontzeptuak beste modu batera ikasten dira, jadanik, gaiak beraien artean lotuak daude eta ikasleak kontzeptu berri hauen artean loturak egiteko gaitasuna dute. Hau guztia kontuan hartuta, ikaskuntza esanguratsuak desberdintasunak ditu lehen hezkuntza edo DBHn izaten baldin bada. Azken batean, Ausubelek ikaskuntza esanguratsuen teoria proposatu zuenean, informazio berria, ezaguera berria, modu ez arbitrarioan ikasten duen pertsonaren egitura kognitiboarekin erlazionatzeko prozesuari zeritzon, hori horrela izanik, baldintza finko batzuk bete behar ditu, beraz, bi hezkuntza hauen artean ezberdintasunak daude hau aplikatzerako orduan.

8.PRAKTIKA -KONSTRUKTIBISMOA: HEZITZAILEEN ETENGABEKO FORMAKUNTZA

Hezkuntzaren Psikologiako klasean, “*Estudio de clases*” irakaskuntza-estrategia bideo batean ikusi eta ulertzeko parada izan genuen. Bideo honetan, Seiyama irakasleak bere ikaskideekin klaseak aurrera eramateko hartzen zituen neurriak eta prozesua azaltzen zaizkigu. Aipatutakoa oinarri harturik, Seiyamaren praktika irakaskuntza-ikaskuntza teoriekin lotuko dugu ondorengo galderetan.

1. “*Estudio de clases*” deitzen den metodoa zertan datza?

“*Estudio de clases*” metodoa, bideoan ikusi dugun bezala zenbait irakasleek beraien klase orduak nolakoak izango diren eta zer helburu izango dituzten pentsatzean oinarritzen da. Metodo honetan, irakasleek ikasleen beharrak, ezagutzak eta gaitasunak analizatzen dituzte klase orduetan zer eta nola egin antolatu ahal izateko. Aldi berean, irakasleek beraien sormenetik eta iritzietatik soilik zuzendu beharrean, beste irakasleei hauen iritzieren inguruan galdetzea ere komenigarria da. Modu honetan, gainontzeko irakasleen gomendioak eta metodoak ere ezagutu ahal izango ditu hezitzaileak, bere klase orduetan hauek praktikara eramateko aukera izango duelarik.

2. Seiyamak erabiltzen duen hezteko modua, zein *konstruktibismo* mota da? Zergatik?

Bideoan azaltzen zaigun Seiyama irakasleak erabiltzen duen hezteko modua Ausubelen ikaskuntza esanguratsuen teorian oinarritzen da. Izan ere, aipatutako teorian bezala, irakasle honek ikasleen hiru elementuei ematen die garrantzia: materialaren esangura logikoari, materialaren esangura psikologikoari eta ikaslearen jarrera mesedegarriari. Beste modu batera esanda, ikasleek materialaren logika ulertu behar dute ikaskuntza prozesu bat hasi ahal izateko. Aldi berean, materialaren esanahi psikologikoak garrantzia izan behar du ikaskuntza prozesuan, hau da, ikasleek ezagutza berriak aurretik zituzten ezagutzetara moldatu behar dituzte. Azkenik, ezinbestekoa da ikasleek edukiekiko motibazioa eta interesa izatea ikaskuntza prozesu egoki bat aurrera eraman ahal izateko.

Teoria honek, Piageten teoria kognitiboan du oinarria, eta bideoan ikus dezakegun moduan Seiyamak beste irakasle bati aholkua eskatzen dio ikasleen motibazioa nola sustatu jakiteko. Aldi berean, ikasleei erronka berriak jartzen joaten da piskanaka-piskanaka eragiketen emaitzak aldatuz eta azkenean ikasleek eragiketa guztiei logika bat bilatu arte. Honetaz gain, Seiyamaren ikasgelan ikus daitekeen bezala ikasle bakoitzak bere ikaskuntza erritmoa du (Piagetek azaltzen digun moduan).

3. Ikaskuntza esanguratsua gauzatzen da gela honetan? Horrela bada, arrazoitu erantzuna. Bideoan agertzen diren adibideak jaso itzazue.

Bai, gela honetan zalantzarik gabe, eta aurreko galderan azaldu dugun moduan ikaskuntza esanguratsua gauzatzen da. Seiyama irakaslearen helburua bere ikasleek eragiketa sekuentziek logika bat jarraitzen dutela ulertzea da hasieratik, beraz, materiaren logika

ulertzeko eragiketa prozesuak erabiltzen ditu. Lehenik eta behin, kenketa baten emaitza soilik ematen die, eta hezigaiak kenkizuna eta kentzailea zeintzuk diren asmatu behar dute logika erabiliz. Metodo horretan oinarritutako pare bat ariketa egin ostean, kendura edo emaitza ezberdineko eragiketak segidan jartzen dituzte arbelean, ikasle batek ordenatu gabe daudela esaten duelarik. Adibide honetan hezigai hori eragiketak kasu isolatuak ez direla konturatu da eta guztiek logika eta orden bat dutela adierazi du, honela, logikan oinarritutako ezagutza berri bat bereganatuz. Ondoren, eragiketen arteko loturaz konturatu dira hezigaiak, kenkizuna handitzen den heinean, kendura ere handitzen dela ondorioztatuz. Laburbilduz, ikaskuntza esanguratsuan oinarritu dira edukiak ulertuz eta eragiketei logika bat topatuz.

4. Irakasleak klaseak eratzten dituen modua ikusirik, zein motatako ikaskuntza gauzatzen da LHko 2.mailako gela honetan? Zergatik?

Lehen Hezkuntza bigarren mailako gela honetan Ausubelen teorian oinarritutako ikaskuntza esanguratsua gauzatzen da. Izan ere, haurren lehenagoko ezagutzak oinarri harturik irakaslea hezigaien ezagutzak zabaltzen saiatzen da azken hauen motibazioa eta interesa piztuz. Esaterako, eragiketak betiko modu tradizionalan egin beharrean, emaitza soilik ikusi eta gainontzeko elementuak aurkitu behar izateak, hau da, “aurkikuntza” bat egiteak, haurrengan erronka berriak eta interesa sustatzen ditu. Honekin batera, eragiketak arbelean adierazteko klariona erabili beharrean txarteltxoak erabiltzean, Seiyama irakasleak irakaskuntza metodo tradizionalarekin apurtzen du eragiketei joko edo puzzle zentzua emanez, hau ere haurrentzako motibagarria delarik.

5. Eta ikasleek ezaguerak hauek zein modutan jasotzen dituzten kontuan izanik, zeina ikaskuntza mota izango litzateke? Zergatik?

Ikasleek ezaguerak zein modutan jasotzen dituzten soilik hartzen badugu kontuan, konstruktibismoaren barruan Piageten teoria kognitiboan oinarritutako ikaskuntza mota izango litzateke. Izan ere, Piageten ustetan, Ausubelen teorian ez bezala, ikasleen motibazioa ezin da irakasleen eskutik manipulatu izan. Hau da, Piageten teoriaren arabera, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza erritmoa du eta piskanaka-piskanaka joaten da bere eskemak zabaltzen eta eduki berriak bereganatzen. Aldi berean, hezigaien ikaskuntza, eskema kognitiboetan aldaketak dauden heinean ematen da, eta aldaketa horiek hiru prozesuetan oinarritzen dira:

1. **Eskema kognitiboen mantentzea;** ikaskuntza prozesua hasi aurretik genituen ezaguerak mantentzea.
2. **Eskema kognitiboak zabaltzea;** ikaskuntza prozesua hasi aurretik genituen ezaguerak aldatu gabe, informazio gehiago eskuratzea eta geure ezagutza zabaltzea.
3. **Eskema kognitiboak aldatzea;** ikaskuntza prozesua hasi aurretik genituen ezaguerak guztiz aldatzea, lehenagotik genituen ezagutza horiek okerrak zirelako.

6. LHko 2. mailako gela honetan, Seiyama hezitzaileari esker, zein baldintzak betetzen dira ikaskuntza esanguratsua eman dadin?

Aurreko erantzun batean azaldu bezala, Seiyama irakasleak ikaskuntza esanguratsua eman dadin haurren motibazioa eta interesa sustatzen du eragiketa arruntetan erronka berriak jarri. Hau da, modu tradizionalan kenketen emaitzak atera beharrean, bere metodoan kenketen

emaitzak hasieratik dira ikusgarriak, eta aurkitu beharreko elementuak kenkizuna eta kenzailea dira. Erronka berri honen aurrean, haurrak motibatu egiten dira eragiketa sinple bat puzzle moduko bat osatzean oinarritzen delako. Behin haurren interesa lortuta, haurrak adi agertzen dira eragiketak egitean, eta honela eragiketen sekuentzia modu logiko batean ulertzera iristen dira.

9.PRAKTIKA: MOTIBAZIOA-XEDEAK

Helburua: Motibazioa barneko faktore garrantzitsuenetariko bat da hezigaiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte-hartzen dutenean.

Prozedura: Motibazioari buruzko kontzeptu eta teoriak landu ondoren, DBHko ikasleen lorpen motibazioaren atzean egon daitezken xedeak aztertuko dira. Adibide zerrenda bat emango da eta zazpi xedeen izendapena.

Jarduera: Beheran 12 ikasleen iritziak azaltzen dira eta bakoitzean zein xede egongo litzatekeen motibazioaren oinarrian bereiztu behar da, xedeen zerrenda erabiliz (7)

Lehenik eta behin, argitu beharra daukagu motibazioak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia. Motibazioa pertsona edo ikasle bakoitzaren jokabidea baldintzatzen duten faktore multzoari deritzogu. Aipatutako faktore-multzo horiek ikaslearen kanpotik (onespen soziala eta irakaslearen metodologia esaterako) edota barrutik (norberaren autokontzeptua adibidez) etor daitezke (Sanz, 2007).

Halaber, ikasteko interesa ikasle bakoitza faktore ezberdinez baldintzatuta egon daitekeenez, ikasleek beraien helburu edo xede espezifikoak izan ohi dituzte. Ondorengo zerrendan ikus daitezke helburu horien adibide batzuk baina dena den, esan beharra dago, zazpi baino helburu asko gehiago egon daitezkeela ikasle bakoitzaren jokabideen oinarrian (Aierbe, 2017). Ariketa honetan, aipatutako zazpi xedeetan zentratuko gara aurrerago azalduko zaizkigun elkarrizketen edukiak helburu horiekin lotuz.

Xedeak:

- 1. Ikastea, gai sentitzea eta horrekin gozatzea**
- 2. Erabilgarria den zerbait ikastea**
- 3. Nota onak lortzea**
- 4. Autoestimari eustea eta hau areagotzea**
- 5. Autonomiaz, ez beharturik, jarduten dutela sentitzea**
- 6. Baldintzarik gabe onartua sentitzea**
- 7. Eskolako jardueraren esanahia izatea**

1.- Zer moduz instituan?

- Gaizki. Ez dut ezer ulertzen. Ez dut ezer ikasten. Hori denbora galtzea da. Lan bila hasteko adina izateko irrikitan nago.**

Ikasle honi instituan zer moduz doan galdetzen diotenean, bere deserosotasuna adierazten digu segituan. Argi ikus daitekeen moduan, ikasle honen xedeak erabilgarria den zerbait ikastea (2) eta eskolako jardueren esanahia ulertzea (7) da. “Ez dut ezer ikasten. Hori denbora galtzea da.” Esaldi bi hauen bitartez ulertu dezakegu ikaslearentzat eskolan ematen diren edukiak ezertarako baliagarriak ez direla eta klasera joatea eduki horiek “entzutera” edo “ikastera” alperrikakoa dela. Lan munduan sartzeko gogoz dago jada, beraz, esan dezakegu eduki akademikoak ikasteko duen motibazioa oso txikia dela, hau alferrikakotzat duelako, eta

nahiago duela beste era bateko praktika eta saria izango duen lan bat egitea. Aldi berean, bere lan munduan sartzeko irrika oinarri hartuta, ikasleak benetan zerbait ikastea, eta gai dela sentitzea nahi duela esan daiteke, modu honetan egiten duenarekin gozatu ahal izateko (1).

Ikasle honen ikaskuntza motibazioa baxua faktore ugarietatik etor daiteke, baina bere xedeak zeintzuk diren eta lorpen motibazioko sailkapena kontuan hartuz, litekeena da arrakastarako zein porrota saihesteko joera baxuak dituen ikasle bat izatea.

2.- Aterako al zara arratsaldean?

- **Ez, ikasi egin behar dut. Bihar ebaluazioa dut. Ez nabil oso ondo eta ez dut uda ikasten pasatzeko gogorik.**

Ikasle honen egoera bestelakoa da. Elkarrizketa fragmentu honetan ikasleak bere xedea nota onak lortzea (3) besterik ez da. Zehazki, azterketa gaitzuztea udan oporrak gozatu ahal izateko. Ikasle honek ez du gustura ikasten, baizik eta bere indarra azterketa gaitzuzteko motibaziotik ateratzen du. Aldi berean, berdin zaio ikasten duena erabilgarria den bere bizitzarako ala ez.

Laburbilduz, ikasle honek porroterako beldurra du eta bere ikasteko prozesua presio batengatik abiatzen da. Beraz, arrakastarako joera altua eta porrota saihesteko joera altua duen ikasle horietako bat da.

3.- Latina izugarritzeko harria da. Zertarako balio du? Erabilgarriagoa izango den beste zerbait ikasi beste besterik ez eta. Ezertarako balio ez duten gauzak eginarazteak amorrua ematen dit.

Ikasle honen xedea garbia da. Latina ez zaio batere gustatzen eta erabilgarria ez dela deritzo, bere motibazioa gai honekiko oso baxua dela begi bistakoa da. Bere xedea, erabilgarria den zerbait ikastea da eta hori horrela ez izateak frustrazioa eta amorrua sentiaraztea egiten dio. Ikasle honek helmugari ez dio garrantzia handirik ematen, azken batean, ez baitu somatzen ikasten ari denik, ezta erabilgarria izango denik etorkizun batean.

4.- Irakasle honek gaizkitu egiten nau. Zerbait badakiela uste du eta arrunt gaizki azaltzen ditu gauzak. Gainera, ezin zaio ezer esan. Begitan hartzen zaituen horietako da eta gero guztiari aurre egin behar.

Kasu honetan, ikasleak irakaslearen azalpenei ematen die indarra, eta hauek egokiek ez direla argudiatzen du. Modu honetan, ikasleek edukiak ulertzeari ari zaio ematen garrantzia.

5.- Atsegin dut irakasle hau. Zorrotza da, baina behar adina alditan azaltzen ditu gauzak eta ulertu dezagula lortzen du. Horrelako irakasleak urriak dira.

Ikasle honek edukien ulermenari ematen dio garrantzia, irakasleak ikasgaia behar den aldietan ondo azaltzea aintzat hartzen du. Gainera, horrelako irakasle gutxi daudela azpimarratzen du, irakasleen helburua ikasleek edukiak ulertzea izan beharko litzatekela argudiatuz. Hau kontuan harturik, ikasle honen hitzen oinarrian eskolaren jardueraren esanahia ulertzea (7) eta erabilgarria izango zaion zerbait ikastea (2) direla esan dezakegu.

Dena den, hitz hauen atzean ere nota onak (3) ateratzeko helburua egon daiteke bigarren maila batean egon daitekeen xede bat izan daitekeen arren.

Laburbilduz, ikasle honek eskolaren jarduerak ulermena oinarritzat izan beharko lukeela uste du, eta aldi berean, bere ikasketa prozesuen motibazioa gauza berriak ulertu eta erabilgarriak egingo zaizkion edukiak ikastea da. Nota onak ateratzeari ere, garrantzia eman diezaioke baina hau ez du bere ikaskuntza-prozesuaren oinarritzko xedetzat hartzen. Beraz, litekeena da ikasle honek arrakastarako joera altuko eta porrota saihesteko joera baxua izatea.

6.- Gainditzen badut aitak motorra erosiko didala agindu dit. Baina, liburuen aurrean jarten naizen bakoitzean, itxaropena galtzen dut. Ez zaizkit gauzak buruan sartzen eta etsi egiten dut.

Adibide hau, baldintzarik gabe onartua sentitzea da. Itxaropen eta motibazio gutxi ditu ikasle honek, ez baitu bere burua gai ikusten, nahiz eta trukean motorra agindu aitak.

7.- Historia ikasteak nazkatu egiten nau.

- **Zergatik? Interesgarria da iragana ezagutza, ez errepikatzeko.**
- **Ziur al zaude? Zertarako balio du Frantziako Iraultza ikasteak, konbentzioa, direktorioa, gillotina izan ziren edo ez jakiteak? Gakoa eskolan esaten dutena buruz ikastea eta ondoren berriz kontatzea da. Eta amaitzen duzunean, irakasle ez bazara...**

Zerbait erabilgarria ikastea da ikasle honen xedea. Kasu honetan historiako ikasgaiak ezer gutxirako balio duela uste du, gehien bat, bertan dauden ezaugarri txikiak, adibidez: direktorea, gillotina...

8.- Galdera egin dizutenean, gaizki pasa duzu.

- Hara bestea! Inori ez zaio gustatzen barregarri geratzea. Eta irakasle hau benetan aditua da ez dakizula erakusten.

Autoestimari eustea eta hau areagotzea da xedea.

9.- Aukerako zein irakasgai hautatu duzu?

- Informatika. Erabilgarria de zerbait ikasteko, besterik ez bada ere.

Xedea kasu honetan, erabilgarria den zerbait ikastea da. Nahiz eta ez gogoko, informatika erabilgarria izango dela deritzolako subjektuak.

10.- Zergatik ez zara eskolara etorri?

- Ezin dut irakasle hori ikusi ere egin. Uste dut begitan hartu nauela. Badirudi ez zaiola gustatzen galderak egitea.

Baldintzarik gabe onartua sentitzea da xedea, kanpo eragin bat hartzen baitu errua botatzeko

11.- - Zuk zergatik ikasten duzu hainbeste? Gustuko al duzu?

- Egia esan jakintzagaietako asko ez ditu gustuko, baina nire gustuko karrera egin nahiko nuke, nahiz eta oraindik ez jakin zein, eta ez nuke nahi nota dela eta ezin iritsirik gelditzea.

Xedea nota onak lortzea da, ziurtasuna bilatzen da gehien bat, hots, etorkizun batean iritsirik gabe geratu ez dadin.

12.- -Zuk zergatik ikasten duzu hainbeste? Gustuko al duzu?

- Egia esan bai. Ondo pentsatzen hasita, irakasgai guztiek dute interesen bat. Eta notarekin edo irakaslearen ez obsesionatzea lortzen baduzu, gozatzerare ere irits zaitezke. Hala ere, batzuetan nekatu egiten naiz, denak bezala.

Ikastea, gai sentitzea eta horrekin gozatzea da xedea, garbi dago adibide honetan. Interesa aurkitzea lortu du, nahiz eta batzuetan nekatu, motibazioa altua dela ikus dezakegu.

DILAN-eko estimuluarekin adibidea:

Gure taldearen estimulua Precious pelikula da. Precious, protagonistaren izena da, bere bizitza Amerikako Estatu Batuetako hiri bateko auzo txiro batean kokatzen da. Bazterketa egoera baten dagoen figura ikus dezakegu, emakumea, beltza eta obesitate arazo bat duena. Gaur egun gizarteak eredu hau errefuxatzen du, jasotako hezkuntza, kultura eta sozializazioaren ondorioz. Bazterketa egoera honen aurrean, filmean zehar Precious kanpoko beste hainbat laguntzekin bere arazo zein erronkak aurrera ateratzen saiatzen da, hemen ikus dezakegularik protagonistarengan hainbat kanpo faktorek bere motibazioan duten eragina.

Aurretik landu dugun moduan, motibazioa pertsona baten ekintzetan, norabidean eta iraunkortasunean eragina duten prozesu multzoa da. Precious pelikula eta honen protagonistaren motibazioa eta bilakaera analizatzen badugu, hainbat eragin jasotzen direla ikusiko dugu. Motibazioa esan bezala pizgarri ezberdinetatik etor daiteke, horien artean: barnekoa (intrinsekoa) eta kanpoko (estrinsekoa). Lehenengo pizgarri motan gure ekintzetatik at aurkitzen diren motibatzaileak lortzea da gure motibazioa (soldata edo dirua esaterako), bigarrenean berriz, guk aukeratzen ditugun gauzatzen ditugun ekintzak gauzatzea lizateke.

Barneko motibazioaren adibide bat pelikulan bilatuz gero, 1:02:40 minutura joatean ikus dezakegu Precious bere amari aurre egitera lehen aldiz ausartzen den momentua. Bere bigarren haurra erditzeak amari aurre egitera eramaten du. Bere bizitza, eta bere seme-alabena hobetzeko beharra ikusten du eta hau da amari aurre egiteko Precious pizten duena. Kanpo motibazioari dagokionean, 1:15:59 minutuan ikus dezakegu Precious bere bizitzan aurrera egiteko duen motibazioa, motibazio hori bere alaba “Mongo” berreskuratzearen beharrak sortzen du, hau da, kanpotik datorren faktore batek.

Motibazio hauetaz gain, Preciousi bere bizitzako arazoei aurrea hartzeko motibazioa eskola alternatiboan duen kidezkotzak eragiten du. Ikasgelan talde baten parte sentitzen da, babestuta, modu honetan, bere ikaskideengan eta baita Blue irakaslearengan ere (bere taldekideak) indarra bilatzen du.

Botere-ahalmena besteen jokabideetan eragina izateko ahalmena da, eta honek pertsona baten motibazioan ere esangura handia izan dezake. Preciousen autoestimua baxua eta honek bere buruarekiko duen autokontzeptu tamalgarria ikusi ostean, Blue irakasleak Preciousi argi uzten dio berak duela bere bizitza hobetu eta gidatzearen botere zein ardura guztia. Honela, kostatu egiten zaion arren, Precious bere amaren jarrerengan eragina duela ikusteak, motibatu egiten du bere nahiak betetzeko bidean. Izan ere, berak ere boterea eta gauzak aldatzeko ahalmena duela konturatzen da, bere bizitzaren protagonista eta egilea bera dela ohartuz.

10.PRAKTIKA: MOTIBAZIOA ETA ESKU-HARTZE SOZIALA

“Una buena intervención social que busque motivar al usuario al cambio se centra desde el inicio en *atender a la relación* entre ayudante y ayudado; al mismo tiempo, en encuadrarlo en *la etapa del cambio* en que se encuentra; una vez situados, iniciaremos la intervención aplicando diversas *estrategias motivacionales* adecuadas para esa etapa” (Bermejo eta Martínez, 2006).

ALDAKETARAKO MOTIBAZIOA LANTZEN: TERESAREN KASUA

1. Laguntza-harremanen eremuan, hasieran harremanak bideratzearen:

1.1. Zer estrategia erabiliko ditugu erabiltzailea “irabazteko” edo berari "ondo erortzeko”?

- Ikuspegi humanistikoa: jarrerak landu.
- Entzute aktiboaren barruan gorputz hizkuntza egoki baten erabilera, empatia... Ahots tonu egokia ere beharrezkoa

Erabiltzailearekin harreman egoki bat eratzeko honako estrategiak erabiliko genituzke:

Komunikatzeko moduak edo elkarrizketak izugarritzko **garrantzia** dutela ikusi dugu bai Teresaren kasuan, baita erabiltzaile ororekin profesional gisa lan egiten dugun momentuan ere; hau da, **asertibitatez jokatzek** duen garrantzia azpimarratzen dugu.

Arazo baten inguruan hitz egiterakoan, garrantzitsua dela uste dugu pertsonaren nahiak, beldurrak, egoerak kontutan hartzea eta orokorrean, esku hartze sozial bat egiterako orduan pertsonaren **testuingurua aztertzea**. Modu honetan, gehiago lagunduko diogula uste dugu; izan ere, arazoan zentratzen bagara eta pertsonaren testuingurua aztertu eta honi garrantzia ematen ez badiogu, baliteke gure esku hartzea horren esanguratsua ez izatea. Hori horrela, pertsonaren nahiak, beldurra eta egoera kontuan hartzen badugu, arazoari erantzun hobeto bat eman diezaiogekula uste dugu.

Horretaz gain, garrantzitsua deritzogu kontatzen dizkigun gauza negatiboak ez nabarmentzea. Hau da, **errefortzu positibo**ei indarra ematea. Teresaren kasuan, esaterako, puntuala dela aipatzen du; hori horrela, horri indarra ematea ondo legoke. Bestalde, **erabiltzaileak kontatzen digunak axola digula adieraztea** ere garrantzitsua dela ikusten dugu, baita bere kezka nahiz nahiak kontutan hartzen eta jasotzen ditugula adieraztea ere.

1.2 Zer jarrerak?

Teresaren egoera aztertzen badugu, konteplazioaldian edo egoeran dagoela esan dezakegu.

Jarrerak aztertzerako orduan, Rogers psikologo humanistak esaten duena kontutan hartu dugu; hori horrela, honen arabera, honakoak hartu beharko genituzke kontutan, profesional gisa laguntza prozesu baten parte hartzen dugunean:

Enpatiaz jokatzek, begietara begiratu, baietz esatea ahozko nahiz ez ahozko komunikazioaren bitartez. Hau da, baietz esatea bai ahotsaren bitartez eta baita keinuen bitartez ere. Horrez gain, **hurbiltasunari** ere berebiziko garrantzia ematen dio, baita **alboan egoteari** ere. Hau da, **gorputz hizkuntza** kontuan hartzea ezinbestekoa dela ikusi dugu. **Entzute aktiboa** ere kontuan hartu beharreko alderdia dela uste dugu. Guzti horretaz gain,

autentikotasunaren garrantzia azpimarratzen digu autore honek. Hau da, bakoitza den bezalakoa azaltzea. Horretaz gain, **baldintzarik gabe** ari dela onartzen erabiltzaileak esaten diona adierazi behar du profesionalak. Beraz, laguntza erlazio batean inplikaturik gaudenean, aurretik aipaturiko hauek hartu beharko genituzkeela kontuan profesional gisa uste dugu.

1.2. Ze pistak eman profesionalari prozesuan laguntzeko?

Prozesuan zehar profesionalari laguntzeko honako pistak eman diezaiokegu:

Batetik, erabiltzailearen testuingurua ezagutzearekin batera, bere bizitzako **esperientzia ezberdinak ezagutzea**. Horretarako, profesionalak, Teresaren kasu honetan, zehaztapenak bilatzen ditu, baita bere bizitzaren orden bat ezartzea ere. Horretarako, bere **harremanak aztertu** eta bere bizitzan nola dagoen zehazten du. Guzti honek, gure prozesuan gauzak nola bideratu lagun gaitzake. Beraz, denboran zehar ordenatzen joaten dela ikusi dugu.

Bestetik, helarazten diren **galderak judiziorik gabeak** izatea ere garrantzitsua da; hau da, ispiluan formatutako galderak helaraztea.

Amaitzeko, **ingurunea** ere **kontuan hartu** beharreko zerbait dela ikusteko aukera izan dugu; hau da, elkarriketa edota esku hartzea aurrera eramaten den tokia, temperatura, soinua ...

2. Teresaren kasuan, elkarriketan zehar ikusi ahal izango dugu aldaketak erresistentziak ere batera ekar ditzala, kasu honetan neurri handi batean iraganeko arazoak integraturik ez dituelako. Saiatu zaitzete (aldaketa esparruen eskema erabili, Miller eta Rollnick 1999) Teresa dagoen etapa identifikatzen eta erantzuna justifikatu.

Teresa “**contemplación**” fasean dagoela esan dezakegu, arazo bat duela planteatzen ari da eta bere egoera guztiz positiboa ez dela ikusten hasi da, hasieran bere sentimendu eta akzioak errefuxatu arren, birpaltzen hasi da bere egoera hau. Fase honetan **anbibalentzia egoera** batean sartu da, hau da, bere egoera bi modu ezberdinetan interpretatzen hasi da. Oraindik ere negatibismo horretan dago, baina, hobekuntza aukera baduela ikusten du. Salto handia egon arren hurrengo fasera, badaki dituen sentimendu horiek kanporatu egin behar dituela, badaki arazoa hor dagoela, baina oraindik sentimendu horiek kanporatzea benetan zaila dela ikusten du eta bide bat eraikitzea ere ez dela lan erraza, horretarako, laguntzarekin liburuari hasiera emango dio eta lehen tresna izango da bere emozio horiek eta **dolua gainditzeko**.

3. Aldaketak bultzatzeko etapa honetan (2. galderan zehatu dena) zein lirategien profesionalarentzat pista adierazgarrienak. Honi buruz, hausnarketa egin eta jaso idatziz.

Landu beharrekoa, **anbibalentzia** hori izan behar du. Anbibalentziaren balantza alde positibora eraman behar du, horretarako, **alderdi positiboak** erakutsi behar dira, aurrera egiteko argudio eta arrazoiak emanda. Horretaz gain, bere **gaitasunak** zeintzuk diren azpimarratu bere autoestimua igotzeko asmoz, aurrera egiteko gai dela erakutsi behar diogu, bere **autodefinizioa hobetzea** behar beharrezkoa da. Azkenik azpimarratu behar da alderdi positiboak zeintzuk diren azalerarazi behar zaizkiola,

ETAPAS DEL CAMBIO (Miller eta Rollnick (1999), 36-41 orr.

Tareas del ayudado/usuario

1. **PRECONTEMPLACIÓN:** La persona no ha considerado que tiene un problema ni que necesita introducir un cambio en su vida. Por ej., alguien que está en un proceso de deshabitación y a la vez consume esporádicamente cánnabis, y no lo ve como problema.
2. **CONTEMPLACIÓN:** La persona comienza a considerar que quizás tenga un problema, y entonces aparece la ambivalencia. La persona contempla la posibilidad de cambio, a la vez que lo rechaza. En el ej. anterior, la persona sigue en el programa y empieza a pensar que quizá esa conducta que hace a escondidas no es del todo positiva, lo cual no significa que la abandone.
3. **DETERMINACIÓN:** la persona toma la decisión de cambiar y entra a la siguiente etapa (fase de acción), si no retrocede a la anterior (contemplación); la persona entiende que vivir sin consumir implica evitar consumos ocasionales. Cuando llega a esta conclusión, la persona desea iniciar cambios que le ayuden a evitar dichos consumos. Esto es la determinación.
4. **ACCIÓN:** La persona se implica en acciones de compromiso dirigidas a introducir cambios en su conducta. El ayudado con su ayudante elabora un plan de acción que le ayude a mantener la conducta de no consumo, y se va trabajando sobre los resultados y las posibles dificultades.
5. **MENTENIMIENTO:** es la etapa en la que el reto consiste en mantener el cambio conseguido y prevenir la recaída.
6. **RECAÍDA:** Las recaídas son normales y esperables cuando una persona intenta cambiar un modelo de conducta de larga duración. El/la ayudado puede caer en desmotivación y desánimo.

Tareas del ayudante en función de las diferentes fases del cambio

1. **PRECONTEMPLACIÓN:** Las tareas se centran en incrementar la duda en el ayudado y darle datos que aumenten la percepción de riesgo y los problemas de su conducta actual.
2. **CONTEMPLACIÓN:** Teniendo en cuenta que el ayudado en esta fase es consciente del problema pero está ambivalente (contempla y rechaza el cambio), la tarea del ayudante consiste en ayudar a que la balanza se decante a favor del cambio (trabajar la ambivalencia, aumentar autoeficacia para el cambio y trabajar expectativas de eficacia).
3. **DETERMINACIÓN:** El ayudado empieza a estar motivado para el cambio por lo que es el momento en el que el/la ayudante asesora y orienta sobre cuál es el mejor curso de acción, el mejor recurso al que acceder.

4. ACCIÓN: La tarea del ayudante es ayudarle a elaborar el plan de acción.
5. MANTENIMIENTO: Reforzar las nuevas conductas y ayudarle a identificar posibles situaciones de riesgo, para prevenir recaídas.
6. RECAÍDA: Los procesos nunca son lineales, la recaída forma parte del mismo proceso. El ayudante en esta etapa tratará de evitar el desconsuelo y tratará de motivarle para renovar su proceso de contemplación, determinación y acción.

11.PRAKTIKA: FAMILIA ETA ARRISKU EGOERAK

Pertsona bat mendekotasunaren munduan sartzen den moduari buruz hausnartu eta zein da bere erantzukizuna; bilatu inguruan duzuen esperientziak eta taldean partekatu. Hauek, Cancrinik adierazi duen arrazoi posibleekin bat datoz?

Talde bezala pentsatzen dugu familiako egoerak eragin izugarria izan dezakeela pertsona baten etorkizunean eta ekintzetan. Taldekide baten ezagun bat dugu kasu, ezagun horren amak alkoholarekin arazoak ditu eta bere aitarekin duen harremana ere ez da ona. Ez dakigu tratu-txarrak ikusgai diren etxeko testuinguruan, baina argi dago ezagun horrek bere familiaren arazoak modu zuzen batean pairatu dituela. Izan ere, drogarekin hasi zen 14-15 urte zituela eta gaur egun jada, 20 urterekin menpekotasun bat duela esan daiteke. Horretaz gain, droga ilegaleen kontsumoaren bitartez dirua lortzen du eta droga munduan nahiko murgilduta dagoela esan daiteke. Luigi Cancrinik esaten duen moduan, pertsona baten haurtzaroko bizipen traumatikoek arazo larriak sortu ditzake pertsona baten bizimoduan, eta hauxe da Teresari gertatu zaiona drogomenpekotasunarekin. Taldekidearen ezagunaren kasuan ere, gauza bera gertatu dela pentsatzen dugu. Bere familiako egoera oraindik konponduta egon ez izanak, pertsona honen mundutik alde egiteko “beharra” sostegatzen du, ihes egite hori drogarekin egiten duelarik. Modu honetan, familian toxikoen kontsumoekin arazoak edo tratu txarrak egotea oso arriskutsua de belaunaldi gazteen etorkizunerako.

Amak alkoholaren mendekotasuna zuen bera nerabea zenean, Zein zailtasunak izango zituen (amak) gurasotasun trebetasunak betetzeko?

Haurren Eskubideen 1989ko Konbentzioaren arabera, familia haurren hazkuntza osasuntsurako oinarritzeko nukleoa da. Modu honetan, familiak haurren garapenean duen garrantzia oso handia da, izan ere, bertan hasten dira mundua ikusten, harremanak izaten, eta izaki sozial bezala garatzen. Era askotako familiak aurki ditzakegu gaur egun, eta aniztasun horrek aberasten gaitu gizarte bezala. Hala ere, guraso izatea ez da batere erraza gaur egun dugun testuinguruan. Teresaren kasuan bezala, guraso eta haurren arteko harremanean eragin sakona duten hainbat faktore egon daitezke, haurren beharrak asetzeko orduan kaltegarriak izan daitezkeenak; aztertuko dugun kasuan, toxikoen kontsumoa (alkohola) den bezala. Oraindik ere askotan pentsatzen da guraso izan eta haurrak sortzeagatik soilik, haurren premia guztiak asetzeko gai garela, baina errealitatea bestelakoa da. Izan ere, arrazoi ezberdinengatik beraien seme-alaben zaintza, garapena eta ongizatea bermatzeko gaitasun nahikoak izan ez dituzten guraso biologiko ugari aurki ditzakegu (Sallés & Ger, d.g) .

Rodrigo eta kol. (2008)-en arabera gurasotasun gaitasunak hiru faktore nagusietaz baldintzatutak ikus daitezke; familiaren baldintza psikosozialengatik, gurasoek eraikitako hezkuntza-esparruagatik edo haurren ezaugarri propioengatik, hain zuzen ere. Geure kasuan murgiltzen bagara, Teresaren ingurune sozialaren azterketa egin beharko dugu bere amak gurasotasun gaitasunetan zituen gabeziak ikusteko. Dakigun bezala, Teresa eta bere amaren arteko erlazioa hotza izan da betidanik, gurasotasun kompetentzien barruan lehen hutsunea ikusten dugularik: seme-alabekiko afektua eta babesa. Hotzetasun horren arrazoia izan daiteke Teresaren amak bera txikia zenean alkoholaren kontsumoarekin izan zituen arazoak.

Toxikoen kontsumo horrek Teresaren amarengan estres iturri bat sortu izana da pentsagarriena, honela bere alabarekiko atxikimendu segurua galarazi zuelarik.

Haur baten hezkuntza bere bizi-zikloan izandako harreman-prozesuen eta gurasoekiko lotura emozionalaren araberakoa izango da. Modu honetan, haurren garapen eta hezkuntza positibo bat ematen da, beti ere, maitatuak eta ondo zainduak sentitzen diren bitartean (Cyrulnik, 2001; Barudy y Dantagnan, 2005). Honekin batera, esan beharra dago Teresaren amaren gurasotasun gaitasunetan eragin handia izan duela honen komunikatzeko estilo agresiboak eta koherentziarik gabeko diziplinak (batzuetan zorrotzegia eta besteetan axolagabetasuna). Ezaugarri bi hauek erakusten digute Teresa hezi izan den ingurunea ez dela onarpen, errespetu eta afektuzkoa izan eta beraz, bere garapen fisiko eta pertsonalean oztopoak egotea eragin duela. Amaitzeko, esan beharra dago haur guztiek behar dutela atxikimendu-irudi bat bizirauteko, atxikimendu horrek babesa eta ongizate emozionala ematen baitiete. Atxikimendu-irudi bat ez egoteak edo galtzeak, hainbat sentimendu edo egoera sortarazten ditu; hala nola, mehatxu eta babes-gabetasun sentimenduak edo arrisku egoerak (Rodrigo & Palacios, 2001). Hau da, hain zuzen Teresari gertatu zaiona bere amona galdu ondoren (bere atxikimendu-irudia izan zena) alkoholarekin eta bestelako drogekin.

Zein babes faktorek ekidin zezaketen egoeraren eragin kaltegarria?

Aurreko atalean azaldu bezala, Teresak bere amarekiko atxikimendu-irudi bat izan ez arren, bere amonarekiko harremana positiboa zen berarentzat. Honek babesa eta segurtasuna ematen zizkion, bere egoera emozionala zertxobait hobetuz. Bere babesa amaren ordeztu amona izateak bere egoeraren eragin kaltegarria ekidin zezakeen. Baina bere amona berak 16 urte zituela hiltzeak, bere atxikimendu-irudia galtzea ekarri zuen. Testuinguru honetan, Teresarentzat oraindik ere atxikimendu-irudiarekiko erlazioak funtsezkoa izaten jarraitzen zuen bere garapenerako. Bat-bateko aldaketa honen aurrean, Teresaren drogekin eta alkoholarekin hasteko ohitura txar hori ekiditeko garrantzitsua izango litzateke honek beste atxikimendu-irudi positibo bat aurkitu izana. Honela, nerabezaroan ere beharrezkoa zuen atxikimendu-irudi baten babesa eta segurtasuna lortuko lukeelarik.

Honetaz gain, amona hiltzearen ondorioz, Teresak egoera traumatiko bat jasan izanak, bestelako egoera zailei aurre egiteko resiliente egin zuela pentsatu daiteke. Resilientzia kontzeptuak existentziaren erronkei aurre egiteko gaitasunen multzoa adierazten du, esperientzia traumatikoak barnebilduz eta garapen prozesu osasuntsu bat mantenduz (Sallés & Ger, d.g). Hau da, Teresak bere bizitzako oztopo gehienei bakarrik aurre egin behar izateak bere autonomian lagundu zezakeen, egoera zailei aurre egiteko gaitasun ugari emanez.

Eskuhartzea: bai familiarekin bai Teresarekin modu indibidualean.

Teresaren egoera konpondu ez dela kontuan hartuz, eta honen etxeko egoera zein egoera pertsonala kezkarriak direla ikusiz, esku-hartze bat egitea beharrezkotzat jotzen dugu. Lehenik eta behin, aipatu beharra dago Teresarekin esku-hartze bat egiteaz gain, bere familiarekin ere lanketa bat egitea beharrezkoa ikusten dugula, bere eragin-nukleorik gertukoena baita. Zalantzarik gabe, Teresaren arazoak amarekin duen harremanean du jatorria, beraz amari bere gurasotasun gaitasunak eskuratzen eta hobetzen lagundu beharko diogu eta baita alabaren eboluzio-une desberdinetan agertzen diren jokabide-gatazkei aurre

egiten ere, hauen esanahia bilatzen eta hauei aurre egiteko estrategiak landuz. Hau honela, hurrengo lerroetan Teresaren familiarekin zein Teresarekin indibidualki landu beharreko arloak eta hau egiteko modua laburki azalduko dugu, biek batera landu beharreko arloekin batera.

Teresarekin esku hartzerako orduan, garrantzitsua ikusten dugu atxikimendu eredu ezberdinak daudela jakitera eman eta azaltzea. Modu honetan, bere atxikimendu-irudia zuen pertsona desagertu arren, beste pertsona batengan sostengu hori bilatzea izango baitu. Honekin batera, harremanak lantzea garrantzitsua ikusten dugu Teresarekin. Bizi izandakoaren ondorioz, harremantzeko zenbait zailtasun dituela ikusi dugulako. Hori erantzun bat emateko, hezitzaileak aurrera eramango duen dinamika honakoa izango da: segurtasun eza, ausardia eta lotsa bezalako alderdiak landuko dituzte. Izan ere, bere hurbileneko nukleoko pertsonekin bizi izandako egoera ezberdinek, berarengan segurtasun eza sortu dutela ikusten da, honek, komunikatzeko zailtasunak ekarriz. Horretaz gain, garrantzitsua ikusten dugu Teresarekin heriotza lantzea. Atxikimendu-irudi hori zuen pertsona (amona) hiltzearen ondorioz, zenbait sentimendu sortzen zaizkiola ikusi bai dugu. Horregatik, zenbait gauzetarako oztopo izan daitezkeen sentimendu horiek lantzen saiatuko da profesionala; batik bat, heriotzaren inguruan hitz eginez.

Horrekin nahikoa ez dela uste dugu, izan ere, gure protagonista Teresa den arren, eta berarekin esku hartze bat egitea behar beharrezko ikusten dugun arren, badaude bere testuinguruan eragiten duten pertsonak ere, eta aurretik esan bezala, nukleo-eragin gertukoena Ama denez, honekin lanketa bat egitea ezinbestekoa ikusten dugu. Amarekin atxikimendua lantzea ere garrantzitsua ikusten dugun arren, honen aurretik beste zenbait bairekin lanketa egitea egokiago ikusten dugu; izan ere, Amak atxikimendu gabezia horren atzean beste zenbait arazo dituela behatu dugu; hala nola, alkoholarekin duen arazoa. Normalean edateari ekiten dion eta drogekin hasten den pertsona batek atzean zergati bat izaten du, horregatik, hezitzailearen lana arazo horren gakoa zein den identifikatzen saiatzea izan beharko da.

Hori gutxi balitz, bere alaba Teresari agresibitatez hitz egiten diola irakurri dugu testuan, eta hau bideratzeko, behar beharrezkoa ikusten dugu Amarekin komunikazioa lantzea. Asertibitatearen inguruan hitz egingo lioke hezitzaileak eta hau praktikan jartzen saiatuko litzateke, aurrerago bere alabarekin martxan jarri dezan.

Esku hartzearekin amaitzeko, Teresaren amarekin jarraituz, garrantzitsua ikusten dugu ere, ama batek dituen ardurak azaltzea eta ardura hauek bete behar izateaz jabetzea. Izan ere, testuaren arabera, estilo agresiboa izateaz gain, zenbaitetan axolagabe jokatzeko duela aipatzen du. Horregatik, ezinbestekoa ikusten dugu guraso batek dituen betebeharez informatzea eta hauek pixkana pixkanaka bereganatzen joatea.

Azkenik, esatea, lanketa guzti hauek prozesu bat eramango dutela. Hau da, profesionalak esku hartze hau aurrera eramateko jarduera ezberdinak burutzen dituen arren, pertsona bakoitzarengan eragingo den aldaketa etorkizun batean emango dela esan behar dugu. Esaterako, Teresaren amaren kasuan, komunikazioa lantzeari ekin eta aldaketa hori ez da gauetik goizera emango den zerbait izango; baizik eta, ematen bada, aurrera begira emango den zerbait izango da. Prozesu bat izango bailiran izango baita, poliki-poliki trebetasun ezberdinak bereganatzen joango da eta asertibitateruntz joango dela suposatzen da agresibitate horretatik aldentuz.

ONDORIOAK:

Guztira 11 praktika ezberdin izan ditugu eta 11 praktika hauek ezagutza ezberdinak lortzea eragin digu. Praktika hauek hainbat gai ezberdin jorretzea ahalbidetu digu, lehenengo hurbilpen batetik psikologiaren hezkuntzara eta familia eta arrisku egoerak ikusteraino. Praktika hauei buruz orokorrean hitz eginda, kontzeptu konkretu batzuk bereganatzea lortu dugu, azken batean, kasu erreal batzuei aplikatuta egon dira gehienak, adibidez, mentes peligrosas filma edo Teresaren kasuaren azken praktika hau. Esan nahi dudana da, betiere, kasu erreal batek objektibitate gehiago eskaintzen digutela ikasgelan eman diren kontzeptuak barneratzerako orduan.

Aurretik esan bezala praktika bakoitzak gauza ezberdinak portaratu digula gure taldeari, hots, praktika bakoitzak ikaskuntza ezberdin eta konkretu batzuk eskaini dizkigula. Hauek izan dira horietako batzuk, adibidez, lehenengo praktikak 2. kurtso honetako hezkuntzaren psikologoari sarrera bat egiten erakutsi zigun, ondorengo kontzeptu berrientzako orientazio bide gisa. 2 praktikarekin, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen azterketa txiki bat egin genuen bertan parte hartzen duten agenteak behatuz. 4. praktikara salto eginez, genero ezberdintasunak nerabezaroen prozesuan ikusi genituen, alderdi psikologiko batetik behatuz. 8. praktika konstruktibismoaren inguruan zen, konstruktibismo eta konduktismoaren arteko aldea zen ikasi genuen eta zer konstruktibismo mota ezberdin dauden barneratu, gehitzeko, Seiyama maisuak erabiltzen dituen teknika horietan erreparatuz, guk ere bereganatu genituen batzuk. Azkenengo adibidea jarriz, 9. praktikan, motibazioen xede ezberdinekin kasu batzuk identifikatzea egin genuen, oso erabilgarria izan zen baina gehien bat atzera begirada bota eta gure kasua pertsonala edo ingurukoak ere aztertzeko momentua izan genuen. Badakigu, beste hainbat praktika eta horien ikaskuntza ezberdinak barneratu ditugula, baina denen aipamen bat egiteak, gutxienez beste 3 orrialdeetarako emango zigunez, hobekuntza planteamenduekin sartuko naiz.

Gauza guztiak bezala praktikak hauek ere bere alde on eta txarrak izan dituzte. Hobetze aldera, gure lehenengo proposamena, honen ildotik doa, askotan praktika bat egiterakoan galduta sentituta gara, ez genekien nondik heldu, kontzeptuak oso argi ez geneuzkalako, beraz guk proposatzen duguna, eskatzen dena zerbait konkretuagoa izan dadin da. Ildo beretik jarraituz, praktika eta ikasgelan ikusitakoa lotzea momentu askotan gogorra izan da, ez bait genuen ikusten erlazorik hasieratan, beraz, guretzako erlazioak azaleratuagoak egotea, bestela praktika batzuen zailtasun maila asko igotzen zen. Azkenik, 11 praktiketatik batzuk, adibidez, 4. praktika, lan mardulegia dela uste dugu. Pixuzko lanak izan dira batzuk eta hauek burutzeko denbora gutxi izan dugu, badakigu ikasgelan egiteko orduak eskeini dizkiguzula, baina ez da nahikoa izan ikasgai guztietan izan ditugun lan guztiekin, honako kritika hau beste ikasgaietara ere estrapola dezakegu. Azken kritika, beste praktika eredu batzuen inguruan da, agian zerbait dinamikoagoa izateak momentu askotan pisu asko kenduko zigun eta kontzeptu ugari barneratzea ere ekarriko zigukeen.

Azkenik, konklusio bezala, esan nahiko genuke, praktiken balorazio orokorra positiboa izan dela. Klasean emandako kontzeptu eta ikaskuntza berri asko martxan jartzeko metodologia egokiak izan direla.

TALDEKO BALORAZIOA:

Lau hilabete honetan Hezkuntzaren Psikologia izeneko gaia izan dugu. Lehenik eta behin, esan behar dugu, aurretik, aurreko ikasturtean Garapenaren Psikologia ikasgaia izan genuela eta ikasgai honek aurreko urtekoarekin lotura zuzena duela uste dugula. Gure taldearen kasuan, taldekide batzuk gogotsuago hasi dira eta beste batzuk ez horrenbeste, izan ere, aurreko urteko esperientziak zuzenki eragin digula uste dugu.

Hala, esan beharra daukagu taldekide batzuentzat gaia ez dela oso gustukoa eta beraz, lan egiterako orduan ez garela ibili oso motibatuta. Hala ere, bai batzuetan beste batzuetan baino askoz ere gusturago ibili gara, pedagogo eta gizarte hezitzailearen funtzioak edo motibazioaren inguruko gaietan esaterako. Uste dugu, kontu hau ikasgai guztietan gertatzen den zerbait dela, izan ere, denok desberdinak izanik, batzuk alor batzuetan erosoago aritzen dira eta beste batzuk beste ikasgai batzuetan.

Taldean izan dugun funtzionamenduan zentratuz, esan beharra daukagu, oso ondo aritu garela. Taldekideok ikasgelatara joan gara eta horrek lana egiterako orduan asko erraztu digu. Egun batzuetan taldekiren batek huts egin arren, guztion artean koordinatu gara eta ondorioz, ez dugu aparteko arazorik izan. Gainera, ahal izan dugun guztietan, denok elkarrekin saiatu gara lanak egiten. Nahiz eta kasu batzuetan, klasean ez digun eman denbora eta ondorioz etxean egin behar izan dugun. Horrelako batzuetan, ia gehienetan denok batera egiten saiatu arren, lanak banatu ditugu. Honek, lana gustatuko litzazuke bezala ez egitera eraman gaitu. Izan ere, betik pentsatu dugu lan osatuagoa egiten dugula denok elkarrekin. Hala ere, egoerak zeintzuk diren ikusita, uste dugu lan politikak egin ditugula eta hauek egiten asko ikasi dugula. Beraz, funtzionamenduari dagokionez, taldekideon artean funtzionamendu egokia izan dugula uste dugu, izan ere, denon artean ondo koordinatu gara eta lanak ondo banatu ditugu. Hala ere, hobetze aldera, hurrengo baterako lanak denon artean gehiago egiteko apustua egin behar dugula uste dugu, nahiz eta badakigun kasu batzuetan ezinezkoa izaten dela.

Taldekideon artean izan ditugun rolei dagokionez, hasierako momentutik taldekide bakoitzak rol bat hartu du. Hau da, beti egon da pertsona bat gehiago saiatu dena, beste bat alferrago ibili dena... Baita ere, roletan zentratuz, gehienetan pertsona berdina arduratu da azken txukunketak egiten edo inprimatzen. Kasu honetan, hasierako momentutik rolak oso finkatuak egon direla hitz egin dugu eta hobetze aldera, hurrengo lanetarako rolak aldatzen joan behar garela esan dugu. Izan ere, denbora guztian rol bat izatea, batzuentzat oso eroso izan daiteke, baina, beste batzuentzat oso gogorra. Gainera, momentu oro nola sentitu garen hitz egin behar dugula ondorioztatu dugu, izan ere, gertatzen da momentu batzuetan pertsona bat erretzera heltzea eta albokoak ez ohartzea honek esplotatu arte. Beraz, astero edo nola sentitu garen hitz egiteko momentu bat hartzea egokia izango litzatekeela iruditzen zaigu.

Orain aipatutako puntuak, puntu ahul bezala kontsideratzen ditugu. Bestalde, esan beharra daukagu, puntu indartsuak ere izan ditugula. Horien artean, taldeko harremana dagoela esango genuke. Izan ere, taldekideok aurretik ezagutzeak asko lagundu digu eta ondorioz oso ondo konpondu gara gure artean. Gainera, konfiantza izateak, momentu ezberdinen aurrean gure iritzia emateko arazorik ez izatera eraman gaitu. Bestalde, taldekideon artean komunikazio oso ona egon da eta denon artean oso ondo koordinatu gara. Beraz, ikasgai honetako praktikak norberaren jakintzak aberasteko baliagarriak izateaz gain, talde bezala funtzionatzeko ere asko irakatsi digula esan dezakegu. Balorazio hau egiten izan ditugun

hutsuneen kontzientzia hartu dugu eta honek, aurrera begira, zertan hobetu behar dugun pentsatzeko parada eman digu.

BIBLIOGRAFIA:

Aierbe, Ana. “Aprendizai Estiloak”. Hezkuntzaren Psikologia. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2017/10/23

Aierbe, Ana. “Konstruktibismoa”. Hezkuntzaren Psikologia. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2017/10/01

Aierbe, Ana. “Motibazioa”. Hezkuntzaren Psikologia. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2017/11/01

Arostegi, E. , Laespada, M.T. eta Iraurgi, I. (2016). Violencia en parejas adolescentes, contexto recreativo y consumo de alcohol: análisis de las representaciones ligadas al género. *Educación Social. Revista d’Intervenció Socioeducativa* (63), p.49-59.

Bermejo, J.C. eta Martínez, A. (2006). *Motivación e intervención social: como trabajar con personas resistentes al cambio*. Bilbo: Sal Terrae.

Cancrini, L. (2007). *Océano borderline. Viajes por una patología inexplorada*. Barcelona: Paidós.

Martínez, D. (2008). *El monstruo*. Barcelona: LOGUEZ.

Miller, W. eta Rollnick, S. (1999). *La entrevista motivacional. Preparar para el cambio de conductas adictivas*. Barcelona: Paidós Ibérica.

Rodrigo, M.J. eta Palacios, J. (2001). *Familia eta giza garapena*. Bilbo: RGM, Bilbo.

Sallés, C. eta Ger, S. (d.g.). Las competencias parentales en la familia contemporánea: descripción, promoción y evaluación. *Educación Social* (49), p.25-47.